




gizartea eta kultura garaikidea

AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO

EUSKERA

APIRILA MAIATZA EKAINA 2019



AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO

Jar zaituz harremanetan Az-rekin

azkunazentroa.eus
info@azkunazentroa.eus
944 014 014

PLAZA ARRIQUIBAR, 4
48010 BILBAO



*Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao leku egokia
da kultura praktika, prozesu, esperientziarako
espazio gisa bizitzeko.*



- 7 Gizartea eraldatzen duen sorkuntza garaikidea Fernando Pérez. Zuzendaria Azkuna Zentroa - Alhóndiga
- 9 Artista elkartuak. Sormena babestuz
- 13 Azkuna Zentroa, forma artistiko berrien epizentroa
- 17 Literatura eta arte garaikidea. Ezinbesteko binomioa

PROGRAMAZIOA

/Literatura

- 20 GUTUN ZURIA. Bilboko Letren Nazioarteko Jaialdia
- 26 Topaketa José Ángel Mañasekin
- 28 *Mujeres, dones, mulleres, emakumeak* liburuaren aurkezpena
- 30 Topaketa Fernando Iwasakirekin
- 32 Topaketa literarioa Seth marrazkilariarekin

/Arte garaikidea

- 34 Inoiz ez erreala / Beti egiazkoa. Erakusketa
- 36 Higinia Garay. *Bigarren begiratu*. Fatxada
- 38 Naiara Goikoetxea Fatxada
- 40 *consonni* radio Az-rekin Egonaldi artistikoak
- 42 Komisariotzaren Nazioarteko Sinposioa Erakusketaren saiakera (1977-2017) Call for papers

/Gizartea

- 44 Gau Zuria
- 44 basque FEST

/Zinema eta ikus-entzunezkoak

- 46 Zinemaren historiako 50 harribitxi. Zinematika
- 51 Bilboko Zinemaldi Fantastikoa - FANT
- 51 Zinemagileen artean. Emakumeek egindako zinemaren 8. karabana
- 52 Irudikatutako hiria. Zinemaren bidez hiri bat eraikitzeko saioa

/Arte biziak

- 54 Julia Eckhardt & Asmus Tietchens. Hotsetan, musika esperimentaleko programa
- 56 Nùria Guiu. *Likes*. Dantza





- 58 [Linn Da Quebrada](#). Musika
- 60 [Stéphane Gladyszewski](#). *Corps noir*. Dantza
- 62 [Miguel A. García & Ensemble](#). Hotsetan, musika
esperimentaleko programa

/Kultura digitala

- 64 [Zinema fantastiko esperimentaletik bideo-jokoetara](#)
The Mask of Atlantis
- 66 [Culture Lab](#). Proiektu artistikoen komunikazio digitala
- 68 [Media Façade Academy](#). smARTplaces programa
europarreko proiektua
- 70 [Craft, Enterprise and Gender in the Digital Age](#)
The work of art. Live dialogues
- 72 [Isaac Cordal](#). *Seguir a los líderes del artista*. Instalazioa
- 72 [Mendi-Mendiyan](#). Opera Eguzkiaren Pantailan

EGONALDI ARTISTIKOEN PROGRAMA

- 76 [Jaiotz Osa eta Sigrid Stigsdatter Mathiassen](#). Dantza
Garaikidea
- 78 [Sra. Polaroiska](#). *Ez dago adinik erritmorako*. Artista
elkartuak
- 80 [Oscar Gómez Mata](#). *Deriben katalogoa* Artista elkartuak

HEZKUNTZA PROGRAMA

- 86 Laboratorio PlayTime
- 87 Jokuplay. FANT Berezia
- 88 Fanzine-tailerra Klari Moreno eskutik
- 90 Ezagutu Mediateka BBK
- 91 Robotika, programazio eta diseinuko tailerrak


JARDUERA FISIKOKO ZENTROA

- 93 Jarduera Fisikoko Zentroa

AGENDA

- 96 Agenda
- 104 Informazio orokorra





gizartea eta kultura garaikidea
sociedad y cultura contemporánea
society and contemporary culture

Gizartea eraldatzen duen sorkuntza garaikidea

AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO

Joan den urtarilean, jendaurrean aurkeztu genuen 2019-2023 Proiektu-Programa. Ez da plan estrategiko bat, Zuzendaritzak Kontseiluari eta hiritarrei egindako proposamena baizik. Asmo handiko eta gauzatzeko moduko bide-orria da, eta eginkizun, ikuspegi eta lan-ildo zehatzak ditu, denboraldi horretan egiteko.

Ezinbestekoa baita nork bere burua definitzea. Zer zaren jakitea eta transmititzea baita eraikitzeke oinarria. 2019-2023 Proiektu-Programa honetan, gizartearen eta kultura garaikidearen arteko lokailu gisa definitu dugu geure burua. Begirada hemen eta nazioartean jarrita duen zentroa, ikusleen komunitate desberdinekin harremanetan jartzeko irekirik, pertsonak eta ingurune artistikoa dituen ekintza guztien ardatz.

Hausnarketa honek esan nahi du orain arte egindakoa baliogesten dugula, baina berriutako begirada garaikide batez, eta hori aldamenean ditugun eta gurekin hainbat esparrutan lanean aritzen diren artisten bidez baizik ezin da egin. Artista konplizeak dira, artea eta gizartea lotzeko egiten dugun hezkuntza- eta bitartekaritza-lanean.

ADNan daramagu sorkuntza garaikideari laguntza emateko joera, eta hainbat programa erabiltzen ditugu horretarako, esaterako, ikerkuntza, sorkuntza eta ekoizpenerako egonaldi artistikoen programa, artelanen ekoizpena bultzatu, eta herritarrengana hurbiltzeko xede duena.

Beste zentro batzuekin trukea egiten ere jarduten gara, hain zuzen, Carlos Garaicoak Habanan duen 'Artista x Artista' programarekin, eta dantza garaikideko Dansateliers Rotterdam sorkuntza- eta erakusketa-zentroarekin, artisten eta era askotako ikusleen arteko harremanari bidea eman nahian. Horrez gain, Kolektibo egoiliarra izeneko programaren bidez, inguruko taldeei gonbit egiten diegu zentroan lan egin dezaten, kultura-ehunik hurbilena pizteko eta harekin lankidetzan aritzeko proiektuak garatzen. Gaur egun, consonni argitaletxe eta ekoiztetxearekin ari gara.

Horrez gain, hiruhileko honetan Artista elkartuak programa jarri dugu abian, Sra Polaroiska kolektibo artistikoarekin, eta begirada desberdin batez lantzen dute emakumeen ahalduntze soziala eta pertsonala zahartzaroan. Bestalde, Oscar Gómez Mata artistak deribak egiteko gonbit egiten digu, hau da, oinez ibiltzeko ekintzaren bidez hiri-paisaiaren eta pertsona bakoitzaren barne-biziaren artean loturak finkatzeko asmoa duten praktikak.

Azkuna Zentroak artisten aldeko apustua egiten du, eraldaketaren sortzaile diren aldetik, haien proposamenei esker gure eginkizuna bete ahal izango baitugu: gizartea eta kultura garaikidea elkartzeko, ingurunean eragiteko, eta gizarte sortzaile, kritikoa eta askotarikoa eraikitzen laguntzeko.

Fernando Pérez
Zuzendaria Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao



Artista elkartuak

Sormena babestuz

Azkuna Zentroak Artista elkartuak programa jarri du abian sormen artistikoa babesteko; beren diziplinetan ibilbide sendoa duten artistak babesten eta laguntzen ditu, lengoia artistiko desberdinei buruzko begirada inspiratzailea nabaria bada beren lanean. Lankidetzarako marko berria, Zentroaren programazio-ildoekin bat datorrena, kultura garaikiderako eta sormen-prozesuen babeserako sarbide-plataforma izatea indartzeko.

Parez pare ibili

Artistak funtsezkoak dira gizartea eraldatzeko, arte bizien bidez gizarte kritikoa sortzeko. Beren proposamenek begirada propioa dute egungo munduari buruz, eta beste mundu batzuk pentsatzeko, irudikatzen eta adierazteko aukera eskaintzen dute.

Gonbitaren bidez eta bi urtean zehar, artistei lagun egin nahi diegu beren ibilbidean. Inguruneko mapa kultural artistikoko erreferente aktiboak dira, eta zeregin hori indartu nahi diegu, komunitatearen arteko trukea erraztu kulturako eta gizarte-eragileekin, artista hauen proiektzioa indartu beste sareekin loturak sustatuz, eta prozesu hauen eragina onartu eta Zentroak hauen egiteko moduen bidez ikasi. Parez pare ibiltzeko programa da.

2019ko urtarrilaz geroztik, Sra Polaraiska eta Oscar Gómez Mata dira Azkuna Zentroko artista elkartuak.

Sra Polaraiska

Alaitz Arenzana eta Maria Ibarretxe dira Sra Polaraiskaren sortzaileak. Alaitz

Arenzana Ikus-entzunezko Komunikazioan lizentziaduna da. Bere lehenengo obretatik argi utzi zuen artearen mundutik gertu zeuden ikerketa- eta sormen-arloaren inguruko bidea hartuko zuela, irudiaren interes industrialagoen bidea hartu ordez. Aldi berean, dokumentalak, publizitatea eta telebistako programak egiten ditu. Maria Ibarretxe Arte Dramatikoko diplomaduna da, sormen eszenikoaren eta performancearen mundutik dator, eta zenbait konpainiatoko dantzaria eta aktorea ere bada. Bere lankidetzaren bidez, bi mundu hauen iragazkortasuna bitarteko toki batean kokatu da. Dantza eta arte eszenikoaren ikerkuntzan diharduen Ruemaniak taldeko kideak dira biak.

Sra Polaraiskaren ikus-entzunezko obrak ekintzako artea, sorkuntza eszenikoa eta koreografikoa aztertzen ditu. Haien lanean, beste espazio eta hizkuntza batzuk bilatzen dituzte, eta gorputza eta kokatuta dagoen espazioarekin gorputzak duen harremana dira beti protagonista nagusiak. Narrazioaren ohiko egituretatik ihes egiten dute, eta ikusleei itxitako kontzeptuetatik ere bai. Obrak anbiguoak dira berariaz. Gorputzari lotutako rolek jolasten dute, beha dagoen begiradari egonkortasuna galarazteko, ikusten duen zera horren aurrean jarrera bat hartzera



Sra Polaraiskaren ikus-entzunezko obrak ekintzako artea, sorkuntza eszenikoa eta koreografikoa aztertzen ditu





behartzeko. Ikuslea erabat murgiltzen da haiek sortutako munduan, espazioan. Espazio hori zabalik dago. Era askotako interpretazioak izan ditzake, pantailan gertatutakoari begira egon diren begiradak beste.

Artista elkartua da [Sra Polaraiska](#), eta bere sormen-prozesuarekin jarraituko du erreferenteak sortuz eta emakume helduen ahalduntzea ardatz gisa hartuz.

Horretarako, programazio hedatua eta belaunaldi-artekoa egingo dute lantzen dituzten piezekin, adinarekin zerikusia duten uste estetikoak eta jarrerakoak ikusgarri bihurtu, eta zalantzan jartzeko. Ikus-entzunezko pieza bat da, *No hay nada más moderno que envejecer* izenekoa, adineko emakumeen gorputzak gizarte-ostrazismora kondematuta daudenez, horiei begiratzeko gonbita da. Bestetik, *El Atlas de los cuerpos* proiektua dago, animaziozko filma da, diktadura frankistaren garaian hazitako 60 urtez gorako sei emakumeren unibertso pertsonala, sexuala

eta afektiboa aztertze gonbita egiten duena.

El musical, cuerpo, movimiento, adolescencia, amor y fantasmias lanaren bidez, Sra Polaraiskak gai honi buruzko begirada zabalagoa eskaintzen du, belaunaldi desberdinetan maitasunaren inguruan egondako heziketa aztertuz, gorputzaren eta agertokiaren ikuspegitik.

Eta *Hamacas* instalazioaren eta lantegi kolektiboaren bidez, parte hartzeko belaunaldi arteko jarduera bat proposatzen dute, belaunaldi bateko baino gehiagoko taldeak elkarrekin harremanetan jarri, eta oihalarekin objektu-eskulturrak egiteko. Historia desberdina duten pertsonen arteko topaketa sustatuko da horrela, entzunaldiaren eta behaketaren bidez.

Oscar Gómez Mata

Aktorea, zuzendaria, egilea eta eszenografoa da. Euskal Herrian hasi zen antzerki-jardueretan, eta 1987an Legaleón-T konpainiaren sortzaile-kide

izanik, ikuskizunak sortu zituen horiekin 1996ra arte.

1997an, L'Alakran konpainia sortu zuen Genevan, eta zuzendaritza, sorkuntza, dramaturgia eta zenbait ikuskizun sinatu ditu bertan. 2013. urteaz geroztik, arauzko irakaslea da Manufacture-n, Suitzako frantseseko antzerki eskolan. (HETSR) Suitzako antzerki sari nazionala 2018an.

Oscar Gómez Matak aurtien garatuko du Azkuna Zentroarekin lankidetzan Laboratorio de derivas. Deriba esatean hiri-geografian pentsamenduak eta emozioak duten noraeza esan nahi da. Edonork egin ditzakeen ibilaldi-moten aurkibide-bilduma moduko bat.

Lehenengo zati honetan, Azkuna Zentroko artista elkartu gisa, [Oscar Gómez Matak](#) proiektu honetan planteatzen du «pentsamendua errebindikazio garaikide gisa, beharrezko eta egiazko une gisa, norbere buruaren eta kanpoan dagoenaren arteko topaketa gauzatzen den une gisa.

////////////////////////////////////
[Oscar Gómez Matak proiektu honetan «pentsamendua errebindikazio garaikide gisa» planteatzen du.](#)
////////////////////////////////////

Pentsamendua barneko gotorleku intimo gisa, zaindu, sustatu, defendatu, tokiz aldatu eta eragin behar dudana».

Oinez ibiltzeari begiratzen dio, «gure urratsen erritmoak gure pentsatzeko moduarekin zerikusia du, geure buruari hitz egiteko moduarekin, inguratzen gaituena geure buruari kontatu eta azaltzarekin, gure inguruan mundua existitzeko egiten dugun moduarekin» azaldu du. Ezustekoa esnatzea da kontua.



©Steeveluncker_Web

Berrasmatu eta probatu denok dakiguna eta ezagutzen duguna: dena lotuta dago, gauza batek beste batera zaramatza beti.

Eguneroko hiriko paisaiak, infra-arina behatzea eta aztertzea landu. Zoria, sinkronikotasuna eta serendipia piztu. Esperientzia horretatik abiatuta, material pertsonala nola sortzen den ikusi.

Proiektu hau [Oscar Gómez Matak](#) eta Esperanza Lópezek egin dute. Lehenengo etapa apirilaren 16, 17 eta 18an eta maiatzaren 27tik ekainaren 8ra izango da.

Lehenengo etapa honen helburua da Deriben Lehenengo Katalogoa egitea eta Azkuna Zentroko publikoarekin esperimentatzea. Horrez gain, workshop erako topaketa bat izango da arte-arloko profesionalekin, era horretako antolakuntzak sormen-materialaren eragile izateari buruz elkarrekin hizketan aritzeko.



Azkuna Zentroa, forma artistiko berrien epizentroa

'Arte biziak' kultura-programazioaren sei ildoetako bat da, eta beste bost arteekin -Arte garaikidea, Zinema eta ikus-entzunezkoa, Gizartea, Kultura digitala eta Literatura- etengabeko elkarriketan, artistak funtsezko ardatzak dira. Ildo honetan jarri dugu abian dantzaren inguruko programazio egonkorra, eta, horren bidez, Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao forma artistiko berrien epizentro bihurtu da, bertakoa aintzat hartuz eta nazioartean orekaz kokatuz. Ildo horretan sustatzen dugu dantza, arte eszenikoen diziplina gisa, zeinetan gorputza den agertokiko elementu nagusia, dela bere koreografiagatik edo espazioan duen kokapenagatik, dela kokapen plastiko edo performatiboagatik.

Programazio egonkorra

2019ko arte eszenikoen programazio egonkorra urtarrilean hasi zen, [Olatz de Andrés](#) koreografoaren *The Big Game* lanaren estreinaldiarekin eta *Sayonara Baby* piezarekin; hor, [Kanpaik](#) (Natalia de Miguelek eta Jorge Jaureguik) giza kondizioaren mapa bat erakutsi ziguten. Zinemak eta dantzak bat egin zuten [La Memoria del Tiempo: Formas en el Espacio-Tiempo](#) lanean (Denboraren memoria: Espazio-denborako formak). Dokumental horretan, [Roberto Menéndezek](#) bidaia bat egiten du sorkuntza garaikidean barrena, Dantzako Sari Nazionala irabazitako bost laguneren eskutik. Hiruhilekoa ixteko, bi pieza izan genituen: [#Blur1](#), [Ibon Salvadorrena](#), eta [Chamaleon](#), [Joseph Simonena](#); biak ala biak dantza

garaikideko egonaldi artistikoa egin dute 2018an, Azkuna Zentroaren egonaldi artistikoen programan.

Urteko bigarren hiruhilekoa hasteko, [Núria Guiuren](#) *Likes* pieza izan genuen, Interneten intoxikazioaren aurrean gorputzez

////////////////////////////////////
Dantza arte eszenikoen diziplina gisa ulertzen dugu, zeinetan gorputza den agertokiko elementu nagusia, dela bere koreografiagatik edo espazioan duen kokapenagatik, dela kokapen plastiko edo performatiboagatik.

////////////////////////////////////
gorputzeko errebindikazioa dena, eta, horren ondoren, Stéphane Gladyszewski koreografoaren *Corps Noir* pieza.

Udazkena hasteko, dantza garaikideko 2019ko artisten egonaldia izango da, [Jaiotz Osa](#) euskal koreografoa eta [Sigrid Stigsdatter Mathiassen](#) daniarra izango ditugu. Lantegia espazioan arituko dira lanean irailean, eta beren sormen-prozesua erakutsiko digute irailean 19rako aurreikusitako Open Studio-n. [Matarile](#) konpainiak ere bere azkenengo lana aurkeztuko du, dantzako; antzerkiko eta performanceko profesionalentzat urtarrilean Zentroan egin zen deialdiaren bidez osatutako taldearen azken lana izango da.

Bestalde, gorputza izango da Fundazioak sustatutako [Dantzaldiaren](#) edizio berriaren

protagonista, berriro ere Azkuna Zentroan izango baitugu bi piezarekin. Gainera, Hiesaren aurkako nazioarteko eguna dela eta, *The Touching Community* aurkeztuko da, **Aimar Pérez Galí** koreografoaren lana, dantzaren eta hiesa/VIHren arteko harremanari buruzkoa. Programa osatzeko, **La Tristuraren *Future Lovers*** izango dugu; obra horretan 2000. urte inguruan jaiotako sei gaztek beren artean eta munduari begira hitz egiten dute.


Olatz de Andrés. *The Big Game*



Sorkuntzako espezialistekin lantzen dugu arte eszenikoen programazio egonkorra, eta esperientzia eraldatzaileak proposatzen zaizkie ikusle-komunitateei, horien leialtasuna bideratzeko.



Aimar Pérez Galí. *The Touching Community*



Sayonara Baby. Karpai







Literatura eta arte garaikidea. Ezinbesteko binomioa

Hitza, adierazpen literarioaren bitarteko legez eta hitza, pertsonen arteko komunikazioaren eta elkarrekintzaren ardatz legez; hitza da, hain zuzen ere, Azkuna Zentroaren ardatz programatikoetako bat, Zentroko kultura-programazioko gainerako ildoekin elkarriketan.

Literaturaz pentsatzen dugunean, liburuak, letrak eta irakurketa etortzen zaizkigu gogora. Azkuna Zentroan ikuspegi garaikideagoa dugu gogoan, literatura hedatu egiten da ahozko adierazpenaren artera eta ahozko transmisiora, ikus-entzunezko narratibara, marrazkira edo komikira. Era berean, beharrezkoa da tokiko sormen urbanoa eta euskarari lotutakoa ikusgarri bihurtzea, familia ardatz duen adierazpenekin batera, azaleratzen ari diren ahots berriekin edo hizkuntza ez hegemonikoekin batera.

Programazioaren bidez beste narratiba batzuk aurkezten ditugu, errealtateari buruzko beste formatu batzuk, liburu baten orriez harago daudenak. Publiko eta begirada anitzei zuzendutako proposamenak, lengoia artistikoak eta diziplinak zeharkatzen dituztenak, praktika artistikoaren bidez lotzen eta hezten dutenak eta modu oso desberdinetatik sormena azpimarratzen dutenak.

Hiruhileko honetan hitzaren zeharkakotasuna landuko dugu [Gutun Zuria - Bilboko Letren Nazioarteko Jaialdiaren](#) bidez, apirilko lehenengo astean sortzaile garaikideak elkartuko dira hitzaren inguruan, hitzaren adierazpen desberdinak biltzeko: ikus-entzunezkoa, musikala, narratiboa, fotografikoa... Eta gauza bera [Inoiz ez erreala / Beti egiazkoa](#) erakusketan ere,

irailaren 22ra arte Erakusketa Aretoan ikusi ahal izango denean. Artearen eta hitzaren arteko sinbiosia, 13 artistaren begirada desberdinaren bidez.

Hitza da, bere adierazpen anitzetan, Mediatekaren euskarria, behin eta berriro bisitatzen den Mediatekarena, pentsatzeko, konektatzeko eta besteak beste komikiaren, marrazkiaren eta ilustrazioaren inguruan, sortzeko toki bihurtutako horrena; sorkuntza artistikoa du ardatz, baina diziplina hau interesatzen zaizkien ere gogoan ditu.

Programazio literarioa

Zentroaren eta programazioaren zeharkako azterketa bat egin ondoren, literatura-programa berreskuratu dugu eta narratibaren inguruko topaketak egin, eta horren adibide dira [José Ángel Mañas](#) eta [Fernando Iwasaki](#) idazleekin apirilean eta maiatzean izango ditugunak.

Komikiak ere zeharkako presentzia du Zentroan Fatxada proiektuaren bidez eta eleberrirako grafikoen egileekin egiten diren topaketan bidez.

Hiruhileko honetan fanzine-lantegi bat izango dugu [Klari Moreno](#) ilustratzailearekin eta hitzaldi bat ere bai [Seth](#) (Gregory Gallant) kanadar marrazkilari Eisner saridunarekin.



Encuentros literarios en Mediateka BBK

the 1990s, the number of people in the world who are poor has increased from 1.2 billion to 1.6 billion.

There are many reasons for this. One is that the world population has increased from 5 billion to 6 billion. Another is that the world economy has not grown as fast as it should have. A third is that the rich countries have not done enough to help the poor. A fourth is that the poor countries have not done enough to help themselves. A fifth is that the world has become more unequal.

There are many things that we can do to help the poor. We can give them money. We can give them food. We can give them education. We can give them health care. We can give them jobs. We can give them a voice. We can give them hope.

There are many things that we can do to help the poor. We can give them money. We can give them food. We can give them education. We can give them health care. We can give them jobs. We can give them a voice. We can give them hope.

There are many things that we can do to help the poor. We can give them money. We can give them food. We can give them education. We can give them health care. We can give them jobs. We can give them a voice. We can give them hope.

There are many things that we can do to help the poor. We can give them money. We can give them food. We can give them education. We can give them health care. We can give them jobs. We can give them a voice. We can give them hope.

There are many things that we can do to help the poor. We can give them money. We can give them food. We can give them education. We can give them health care. We can give them jobs. We can give them a voice. We can give them hope.

There are many things that we can do to help the poor. We can give them money. We can give them food. We can give them education. We can give them health care. We can give them jobs. We can give them a voice. We can give them hope.

There are many things that we can do to help the poor. We can give them money. We can give them food. We can give them education. We can give them health care. We can give them jobs. We can give them a voice. We can give them hope.

There are many things that we can do to help the poor. We can give them money. We can give them food. We can give them education. We can give them health care. We can give them jobs. We can give them a voice. We can give them hope.

There are many things that we can do to help the poor. We can give them money. We can give them food. We can give them education. We can give them health care. We can give them jobs. We can give them a voice. We can give them hope.

There are many things that we can do to help the poor. We can give them money. We can give them food. We can give them education. We can give them health care. We can give them jobs. We can give them a voice. We can give them hope.

PROGRAMAZIOA

gutunzuria

BILBOKO LETREN
NAZIOARTEKO JAIALDIA

FESTIVAL INTERNACIONAL DE
LAS LETRAS DE BILBAO

BILBAO INTERNATIONAL
LITERATURE FESTIVAL

**Gaur gauean suak nire
liburutegia erreko balu**

ARTEA KONTATZEKO ARTEA

**Si mi biblioteca ardiera
esta noche**

EL ARTE DE NARRAR EL ARTE

**If my library burnt
tonight**

THE ART OF NARRATING ART

2019

2 > 6

APIRILA
ABRIL
APRIL

azkunazentroa.eus

**AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO**

Bilbao

GUTUN ZURIA

Bilboko Letren Nazioarteko Jaialdia

Gutun Zuria, Bilboko Letren Nazioarteko Jaialdia, berritu egin da, entzule eta formatu berrietara zabaltzeko. Nazioarteko eta hemengo sortzaileekin elkarriketak egiteaz gain, jardueraz betetako programa publikoa osatu dugu, **Gutun Zuria** hizkuntza berriak sortzera eta hedatzera zabalduko literatura-jaialdia da-eta.

Arteak dituen aukera narratiboak erakutsiko dizkiguten tailerrak, hitza eta musika bateratzen dituzten hitzaldi eta errezitaldiak, argitaletxe independenteei buruzko eta Euskal literatura ekoizpeneko agenteen topaketa, euskal-narratiba sorkuntzako beste fazeta batzuetara eramateari buruzko elkarriketa eta mahai-inguruak... Horiek artistekin dugun konplizitatearen emaitza dira, eta balio eta aberastasun gehiago ematen dizkiote hitzordu honi; gonbit egiten dizuegu, literatura erdigunean jarrita, partekatuzera, hitz egitera, eztabaidatzera, ikastera eta aztarna uztera.

Gutun Zuriak Alhondiga-Bilbaoko espazio guztiak hartzen ditu: Auditoriumetik Mediatekara, Ataria edota Lantegia, sorkuntza eta inobazio kulturalerako espazio berria; goizeko, arratseldeko eta gaueko programazioarekin.

Hori guztia inplizituki agertzen da **Gutun Zuriaren** edizio honetako tituluan: Gaur gauean suak nire liburutegia erreko balu. Artea kontatzeko artea. Lehen zatiak Aldous Huxleyren saiakera du abiaburu, Huxleyk argudiatu baitzuen liburutegi bat erretzea alferrikako ekintza dela, liburuak berriz irakurri eta eduki ahal direlako. Bigarren zatiak, berriz, José Lezama Lima poetak ahozko arteari buruz idatzitako testu bat du aipagai.



PROGRAMA

Apirilak 2 eta 3 (asteartea eta asteazkena)
9:30-13:00

Tailerra: Hitzak suntsitzea ederra da



Irakaslea: Verónica Gerber Bicecci

Lantegia 2

15/12€ Az Txartelarekin

Hizkuntza bat irudikatzea bizitzeko modu bat irudikatzea baldin bada", eta "hitz berri bat eztabaidaren lurrera botatako hazi fresko baten modukoa bada" -Walter Benjaminek esan zuenez-, orduan, agian, bada garaia araudi akademiko eta hizkuntzaren malgutasun naturaletik harantz jotzeko, eta haren mugak eta formatuak eraldatzen saiatzeko. Literatura futuristaren manifestuak eta George Orwellen "Hizketaberriaren printzipioak" izango dira abiaburua, beste leku batetik idazteko eta irudiak egiteko bide emango diguten sintaxi alternoak irudikatzeko eta haietaz eztabaidatzeko.

Apirilak 2, asteartea
19:00

Inaugurazioa

Sisyphus Ascending. Lars Gregersen
artistaren pieza eszenikoa, eta
Elkarrizketa: Gerber Bicecci Iván de la
Nuezekin

Auditorioa

Sarrera dohainik gonbidapenarekin (jaso infopuntuan), eserleku guztiak bete arte.

Verónica Gerber Bicecci. Mexiko Hiria (1981) Idazten duen artista bisuala. Mudanza (2010, Re 2017) eta Conjunto vacío (2015) liburuak argitaratu ditu. Bere azken proiektuen artean honako hauek daude: *lamaquinadistopica.xyz* (2018) Museo Arte Abstracto Manuel Felguérez

(Zacatecas); Otro día... Poemas sintéticos (2017) Proxyco Gallery (NY) eta MAZ (Guadalajara); eta Palabras migrantes (2017) Art Association, Jackson Hole (USA).

Iván de la Nuez. La Habana (1964)

Iván de la Nuez saiakeragilea, kritikaria eta komisarioa da. Liburu hauek idatzi ditu: *La balsa perpetua*, *El mapa de sal*, *Fantasia Roja*, *El comunista manifesto* eta *Teoría de la retaguardia*. Erakusketa hauek egin ditu, besteak beste: *La isla posible*, *Inundaciones*, *Parque humano*, *Postcapital*, *De Facto*. Retrospectiva de Joan Fontcuberta, *Atopía*. *El arte y la ciudad en el siglo XXI*, *Iconocracia*, *Pintar contra el tiempo* eta *Nunca real / Siempre verdadero*.

Apirilak 2, asteartea

21:00

Hitzaldia: Maialen Lujanbio



Auditorioa

3€ / 2€ Az Txartelarekin

Batez ere bertsolari gisa ezaguna bada ere, Maialen Lujanbiok ekarpen ugari egin ditu, halaber, bertsolaritzaren ertzetan zein haietatik kanpo. Zubi asko eraiki izan ditu bertsolaritza eta beste arte disziplina garaikideen artean, hala diskurtsiboki nola praktika artistikoen bidez. Zubi horiek zehaztuko dute haren hitzaldiaren ibilbidea, eta hausnarketa egingo du bertsolaritzak inguruko arteekin duen erlazioaz.

Apirilak 3 eta 4 (asteazkena eta osteguna)
17:00-19:15

Tailerra: Irudiak eta hitzak, bestelako
ikuspegia duen tailerra

Irakaslea: FormArte

Medialab 2. Mediateka

Sorkuntza artistikoko tailerra, dibertsitate funtzionala duten pertsoneri zuzenduta.

Apirilak 3, asteazkena

10:00-13:00

Topaketa: Euskadiko Idazleen Elkarteak. Nola erakarri ikus-entzule berriak jaialdietara

Bastida Aretoa

Sarrera dohainik eserleku guztiak bete arte

Parte-hartzaileak: Sheila Cremaschi, Segovia hiriko 'Hay Festival of Literature and the Arts' jaialdiko zuzendaria; Luis Posada, Madril eta Malagako 'Eñe' jaialdiko zuzendaria; Ricard Robles, Bartzelonako 'Sonar' jaialdiko zuzendaria; eta María Eugenia Salaverri, Euskadiko Idazleen Elkarte zuzendaria, moderatzaile gisa.

Apirilak 3, asteazkena

19:30

Cristina de Middel, Joan Fontcuberta, Agustín Fernández Mallo: *Buruz buru fikzio fotografikoaren inguruan*



Cristina de Middel

Auditorioa

3€ / 2€ Az Txartelarekin

Cristina de Middel (Alacant, 1975) Espainiako Sari Nazionala irabazia, PhotoEspañako komisarioa eta Magnumeko nominako kide, haren narrazioak arrandiaren aurkako antidotoak dira, dela artean, dela literaturan.

Joan Fontcuberta (Bartzelona, 1955)

Beharbada, argazkilarien artean literaltasuna gutxien eta literariotasuna gehien erabiltzen duena da. Idazle bezala, Espainiako Saiakera Saria irabazia da. Artista moduan, Espainiako Argazkilaritza Saria eta Hasselblad saria (literaturan Nobelaren edo arkitekturan Pritzker sariaren parekotzat jotzen dena).

Agustín Fernández Mallo (La Coruña, 1967) 2018 egile honen urtea izan zen. Biblioteca Breve saria irabaziz hasi zuen, Trilogía de la guerra



Joan Fontcuberta

eleberriarekin, eta harena bezain asmo handiko saiakera batekin bukatu: *Teoría general de la basura*.

Apirilak 4 eta 5 (osteguna eta ostirala)

9:30-13:00

Argitaletxe independenteekin topaketa

Lantegia 2

Argitaletxe independenteak engaiatzeko asmoz, Az-ko kolektibo egotziarra den consonni argitaletxeak argitaletxe independenteekin izango den topaketa koordinatuko du, eta, hor, besteak beste, dauden arazoez, ezaugarriez, desberdintasunez eta desirez hitz egiteaz gain, bidea eman nahi dute guztiok erabiltzeko moduko estrategiak prestatzeko.

Apirilak 4, osteguna

10:00-13:00

Topaketa: Euskal Idazleen Elkarte. Hitz Beste



Ricard Robles

Bastida Aretoa

Sarrera dohainik eserleku guztiak bete arte

Euskal Idazleen Elkarteak Hitz Beste topaketa antolatuta du. Hitz eta arte, filosofia, antzerki eta grafikaren artean dagoen lotura aztertuko dute, eta, horretarako, hainbat diziplina harremanetan jarriko eta alderatuko dituzte.

Apirilak 4, osteguna

18:00

SOLASALDIA: Xabier Gantzarain, Harkaitz Cano



Xabier Gantzarain

Bastida Aretoa


3€ / 2€ Az Txartelarekin

Harkaitz Canoren literaturaren eta arte garaikidearen arteko harremanaren inguruan hitz egiteaz gain, euskal arte garaikideaz eta liburuetakoa azalen diseinuaz ere jardungo dira.

Apirilak 4, osteguna

19:30

Juan Vico, Carlos Fonseca, Valérie Mréjen, Julián Rodríguezekin



Juan Vico

Auditorioa

3€ / 2€ Az Txartelarekin

Carlos Fonseca (San José, Costa Rica, 1987). Bere narrazio gintzan, konspirazio bat balitz bezala agertzen da artea, non artxiboaren, dokumentuaren edo bildumen balioa errealitatearen ertzeko esparru moduan azalartzen diren.

Juan Vico (Badalona, 1975). Poeta, eleberrigilea, editorea. El teatro de la luz, Hobo edo El animal más triste lanetan, arteak edo zinematik haren idazkera tenkatu egiten dute, memoria galdu bat berreraikitzeke iragate-errituak balira bezala.

Valérie Mréjen (Paris, 1969). *Mon grand-père*

-Aitona- nobela albiste bihurtu zen Frantzian. Aldi berean zakarra eta sofistikatua den testuan, interesgunea gainerakoekin eta haien isilpekoekin harremanetan sartzen garen modua da.

Apirilak 3 > 5, asteazkena > ostirala

Apirilak 3 eta 4: 18:00

Apirilak 5: 17:00

consonni radio Az-rekin

Voces en el jardín. Gutun Zuria berezia

Kulturen Ataria

Sarrera dohainik

consonni radio Az-rekin irratiak Ahotsak lorategiaren programa berezia egingo du Gutun Zuria dela-eta. Az-ko kolektibo egoiliarra den consonnik duen programetako bat da, eta Alicia San Juanek gidatzen du. Programan, Jaialdiko protagonista batzuek parte hartuko dute, hausnarketak egiteko eta beren iritziak emateko.

Apirilak 5, ostirala

18:00

Mahai-ingurua.

Danele Sarriugarte, Beatriz Chivite, Eric Dicharry, Beñat Sarasolarekin



Danele Sarriugarte

Bastida Aretoa

3€ / 2€ Az Txartelarekin

Hiru idazle hauen obretan zein praktketan arte garaikideak garrantzia nabarmena du. Hirurak dira literatura idazle, hirurak berriki samar argitaratzen hasiak, baina bakoitzak leku ezberdinetatik begiratzen dio arteari.

Apirilak 5, ostirala

19:30

Solasean: Bernardo Atxaga, Oskar Alegria

Auditorioa

3€ / 2€ Az Txartelarekin

Bernardo Atxaga idazlea eta Oskar Alegria kazetaria solasean arituko dira, literatura eta ikus-entzunezkoen narratiba hizpide hartuta, eta idazketan, zineman eta fotografian izan duten esperientzian oinarri hartutik.

Apirilak 5, ostirala

21:00

Christina Rosenvinge, Chico y Chicarekin



Kulturen Ataria

3€ / 2€ Az Txartelarekin

Debut lanean, Christina Rosenvingek kantuz beteriko hogeita bost urte baino gehiago jaso, eta bere letren azpian dauden tokiak, kontakizunak eta hausnarketak bildu ditu. Ibilbide oso bateko hitzak dira, une bakoitzean alboan izan dituen koadernoen birsorkuntzarekin batera.

Apirilak 6, larunbata

19:30

Enrique Vila-Matas, Alicia Kopf, Iñaki Esteban: *Amildegia esploratzen duten irudiak*



Auditoria

3€ / 2€ Az Txartelarekin

Enrique Vila-Matas (Bartzelona, 1948). Zaila da artearen eta literaturaren arteko mugak hain era erradikalean eta, nolabait esateko, berezkoan ezabatu dituen beste idazlerik aurkitzea.

Alicia Kopf (Girona, 1982) Marraztu egiten du, nola literaturan eroso ez dagoen idazkera, hala Artearen sisteman gune erosoan pausatzen ez den artea. Horixe lortu du Alicia Kopfek *El hermano de hielo* [Anaia izotzezkoa] lehen eleberriarekin, bai eta aldi berean barnekoa nahiz kanpoko, hurbilekoa eta izugarria den espedizio

horretatik eratorritako *Conquest drawings* [Konkista marrazkiak] seriean ere.

Iñaki Esteban (Amurrio, 1961) Gutun Zuriko aholkularia da lehenengo ediziotik. El efecto Guggenheim eta Libertad y sentido en las sociedades democráticas lanen egilea da, Miguel de Unamuno Saria.

Apirilak 6, larunbata

21:30

Rafael Lechowski



Kulturen Ataria

12/10€ Az Txartelarekin

(Wroclaw, 1985) Gero eta zailagoa da Rafael Lechowskiren estiloa definitzea -hibrido bitxi bat, poesia, jazza, rapa eta slam-a uztartzen dituen-, baina, hala ere, haren generoan, hizkuntza hispanoko letristarik garrantzitsuenetakotzat hartzen da: haren ahotsak gero eta oihartzun ozenagoa du, eta eragin nabarmena du, hala Espainian nola Latinoamerika.

Apirilak 3 > 6

12.30-13.30

Nunca Real / Siempre Verdadero (Inoiz ez erreala / beti egiazkoa) erakusketaren bisita, Iván de la Nuez komisarioaren eta erakusketan parte hartu duten artista batzuen eskutik

Erakusketa Aretoa

Sarrera dohainik

Apirilak 2 > 6

19:00 y 21:00

Liburuak sinatzea

Kulturen Ataria

Sarrera dohainik

Apirilak 2 > 6

9:00 - 21:00

Mediatekako bibliografiako gunea

LITERATURA / NARRATIBA **API. 11** (ost.)

Topaketa

José Ángel Mañasekin



José Ángel Mañas idazleak *Los conquistadores de lo imposible* bere azken liburuari buruzko xehetasunak eskainiko ditu, Maria Eugenia Salaverrik gidatuta Medialab 2 aretoan ikus-entzuleekin izango duen topaketan.

Mañasek kultuko eleberriak idatzi ditu, esate baterako, Kronen tetralogiakoak. Horrez gain, saiakeragilea eta gidoilari arrakastatsua da. *Los conquistadores de lo imposible* lanean, eleberri historikoa jorratzen du, gizateriaren epopeiarik handienetako baten berri kontatzeko: Amerikaren aurkikuntza eta konkista. Narratzaile liluragarri batek epika, abenturak eta pertsonaia harrigarriak eta ohiz kanpokoak sortzen ditu, eta 1492. urteko mundura eramaten gaitu, lurraren laurden bat ezezaguna zen eta kontinente bat historian azaltzeko gertu zegoen garaira.

////////////////////////////////////

Apirilak 11, osteguna

19:00

Medialab 2. Mediateka BBK

Sarrera dohainik, gonbidapena izanez gero (jaso infopuntuan) leku guztiak bete arte.

////////////////////////////////////

LITERATURA **MAI. 15** (astez.)

Mujeres, dones, mulleres, emakumeak liburuaren aurkezpena

Argazkia: Maite Albiz Emakumeen Dokumentazio Zentroa



Maite Albiz Emakumeen Dokumentazio Zentroak *Mujeres, dones, mulleres, emakumeak* liburuaren aurkezpen-ekitaldia egingo du Azkuna Zentroan.

Liburuan, nazioarteko hainbat unibertsitatetako hogeitazikertzaile entzutetsuren lana bildu da, eta agerian jarri da emakumeei eta generoari buruzko historiografiak gaur egun duen berrikuntza teorikoa eta metodologikoa.

Mujeres, dones, mulleres, emakumeak Mary Nash historialariari egindako omenaldia da, haren hirurogeita hamargarren urtemugan, bera aitzindaria izan baitzen azterketa feministak eta genero-arloko lanak egiten.

Liburuan, gai hauek jorratzen dira, besteak beste: feminismoa eta kultura politiko desberdinekin duen harremana, gerra zibilean eta frankismoan emakumeek nozitutako errepresioa, maskulinitasuna eta amodio erromantikoa. Zentroko kide diren Miren Llona eta Nere Aresti historialariek parte hartu dute lanean, besteak beste.

Liburu honen aurkezpena Maite Albiz Emakumeen Dokumentazio Zentroaren eta Azkuna Zentroaren arteko elkarlanaren emaitza da. Hala, Mediatekan eskuragarri dago zentroak orain dela urte batzuk Az-ri laga zion funtsa.

Teoria feminista eta genero-gaiak lantzen dituzten 1.200 monografia dira, diziplina akademiko desberdinetakoak, Euskadiko mugimendu feministaren ideiak kontserbatzeko eta dokumentatzeko eta , orobat, ikuspegi ez-sexista duten adierazpen kulturalak ezagutarazteko duten kezka emaitza.

////////////////////////////////////

Maiatzak 15, asteazkena
19:00

Medialab 2. Mediateka BBK
Sarrera dohainik, gonbidapena izanez gero (jaso infopuntuan) leku guztiak bete arte.

////////////////////////////////////

Topaketa Fernando Iwasakirekin



Maiatzaren 23an, Latinoamerikako intelektualik nabarmenetako bat izango dugu Azkuna Zentroan.

Fernando Iwasaki hizketan arituko da María Eugenia Salaverrirekin, arrakasta eta sari ugari eskuratu dituen *Las palabras primas* liburuaz.

Iwasaki -idazle, kazetari, historialari, eleberrigile eta zutabegilea- intelektual unibertsalaren adibiderik argienetako bat dugu, umorez eta adimenez uztartzen baititu bere sustrai ugariak: japoniarra, perutarra, italiarra eta espainola.

Amerikako zein Europako, bi ertzetako gaztelaniadun izateak ematen dion pribilegiozko mailatik, saiakera ausart, argi eta dibertigarri baten alde egiten du *Las palabras primas* lanean. Liburuak berariaz nabarmentzen du teknologia berriek irakurketan eta literaturan duten eragina.

////////////////////////////////////

Maiatzak 23, osteguna
19:00

Medialab 2. Mediateka BBK
Sarrera dohainik, gonbidapena
izanez gero (jaso infopuntuan)
leku guztiak bete arte.

////////////////////////////////////

Topaketa literarioa Seth marrazkilariarekin



Seth



Sethek, Ipar Amerikako komiki independenteko ezinbesteko egileak, *Ventiladores Clyde* aurkeztuko du Azkuna Zentroan, ziurrena, bere lanik garrantzitsuen dena, ia hogeitaz eman baititu bera prestatzen. Hor, bere jakintza eta dotoretasun grafikoa erakusten du, aurreko mendeko hogeita hamarreko hamarkadako The New Yorker argitalpeneko ilustratzailearen oinordeko dena.

Ventiladores Clyde lanean, bi anaia agertzen dira, familia-entresa zaharkitua aurrera ateratzeko borrokan, baina negozio-eredu berriekin eta etengabe agertzen diren aurrerapen teknologikoekin lehiatzeko ezgauza.

Mediatekan izango den topaketan, Sethek istorio familiar honen xehetasunak azalduko dizkigu: atsekabe eta desadostasun ugariak, saminez eta malenkoniaz blaituriko narrazio-giroan.

Seth (Clinton, Ontario, 1962) -Gregory Gallanten ezizena-komikien marrazkilaria eta ilustratzailea da. 1991n atera zuen berak egindako *Palookaville* komikia, *Drawn & Quarterly* zigiluak argitaratuta. Gaur egungo egilerik garrantzitsu eta itzaltsuenetako bat da. Lan hauek eman ditu argitara, besteak beste: *Ventiladores Clyde* (2003), *George Sprott* (2009), *Wimbledon Green* (2012), *La G.N.B. doble C.* (2013) eta *Un verano en las dunas* (2016). Komikiak egiteaz gain, Seth ilustratzaile ospetsua da, eta entzute handiko tokietan atera ditu lanak, hala nola The New Yorker eta The Washington Post argitalpenen burualdeetan.

////////////////////////////////////

Ekainak 3, astelehena
19:00

Medialab 2. Mediateka BBK

Sarrera dohainik, gonbidapena izanez gero (jaso infopuntuan) leku guztiak bete arte.

////////////////////////////////////

Inoiz ez erreala / Beti egiazkoa



El aire y los sueños. Glenda León

Inoiz ez erreala / Beti egiazkoa, Artaud poetaren esaldi entzutetsua, artearen eta literaturaren arteko sinbiosiari buruzko erakusketa honen goiburu gisa agertzen da. Lelo honek 13 artistaren diskurtsoak lotzen ditu, denek onartzen baitute artea genero literarioa dela eta literatura erakusketa-proiektua izan daitekeela. Kurt Caviezel, Cristina de Middel, Gonzalo Elvira, Oier Etxeberria, Kiko Faxas, Joan Fontcuberta, Verónica Gerber Bicecci, Alicia Kopf, Glenda León, Valérie Mréjen, Guillem Nadal, Mabi Revuelta eta Xabier Salaberria dira artistak. Azken honek erakusketako espazioa diseinatu du: piezen pieza, beste batzuen artelanez eratutako bere eskultura modura.

Saiakeragile, kritikari eta komisarioa den Iván de la Nuezek gidatua eta Azkuna Zentroak ekoitzia, honako hau ez da marrazki, bideo, instalazio edo fotografietan “testuak txertatzen dituen” artisten erakusketa bat. Ezta literatura “sartzen” duten irudien erakusgai bat ere. «Ez da ausazko hautapen bat, baizik eta lau alderen arteko elkargunea -Liburua marraztu, Politika itzuli, Paisaia idatzi, Historia lekualdatu-, eta, hor, fikzioa obrak eraikitzeke protagonista eta bitartekoa da aldi berean», zehaztu du Iván de la Nuezek.

XXI. mendeko kultuaren isla modura, erakusketa-proiektu honek artearen eta literaturaren arteko mugak ezabatu nahi ditu, hedatutako liburu bihurtu, ahozko erakusketa erakusketa bisual bilakatzeko.

«Batez ere artisten arteko topaketa da, gaur egun liburua inoiz baino biziago dagoela uste duten artisten topaketa. Baina bizitasun hori ez dator bere gelditasunetik, baizik eta bere izaera aldakorretik. Ez da bere banakotasunaren ondorioa, baizik eta bere aniztasunarena. Eta ez bere balizko desagerpenagatik, baizik eta egokitzeko duen gaitasunagatik», nabarmendu du erakusketako komisario Iván de la Nuezek.

Inoiz ez erreala / Beti egiazkoa erakusketak lotura du Gutun Zuriarekin. Izan ere, apirilaren 2tik 6ra arte izango den Bilboko Letren Nazioarteko Jaialdia literatura-sistemako beste esparru batzuetara ere hedatuko da, narratibatik harantz, hitza eta beste praktika artistiko eta formatu batzuk harremanetan jarritz. Informazio gehiago 21 orrialdean.

Apirilaren 3tik 6ra arte, bisita gidatuak egingo dira erakusketa ikusteko, Gutun Zuriaren esparruan. Bilboko Letren Nazioarteko Jaialdia Informazio gehiago 21 orrian

////////////////////////////////////
Martxoak 14 > Irailak 22

Erakusketa Aretoa
Sarrera dohainik

////////////////////////////////////
Ordutegia:

Asteleheneren itxita

Asteartetik ostegunera eta
igandeak: 11:00-20:00

Ostiralak, larunbatak, jai-
egunak eta jai-egun bezperak:
11:00-21:00

Apirilaren 2tik 6ra, Gutun
Zuria jaialdiaren barruan,
erakusketa zabalik egongo da
egunero, 22:00ak arte.

////////////////////////////////////
KOMISARIOA:

Iván de la Nuez

ARTISTAK:

Verónica Gerber Bicecci
Glenda León
Gonzalo Elvira
Cristina de Middel
Kiko Faxas
Oier Etxeberria
Guillem Nadal
Alicia Kopf
Valérie Mréjen
Fontcuberta
Mabi Revuelta
Kurt Caviezel
Xabier Salaberria

Bisita gidatuak

Erakusketaren Bisita Gidatua
(45')

Ostegunero 19:00etan
Sarrera dohainik, aurrez
Infopuntuan edo 944 014 014
telefonoan izena emanda

Gehienez 25 pertsona
Gutxienez 4 lagun

ARTE GARAIKIDEA / FATXADA PROIEKTUA
MAR 15. > MAI. 15

Higinia Garay

Bigarren begiratu

Ilustrazioa



Higinia Garay artistak interbentzioa egingo du Arriquirarreko Fatxadan, martxoaren 15etik maiatzaren 15era arte, inguratzen gaituen horren gaineko *Bigarren begiratu* proposatuz.

«Fatxadarako dudan proiektuak erakusgai egongo den lekua bera du abiaburu: Zentroko sarrera. Trantsituko toki horren bidez, inguratzen gaituzten gauzei nola begiratzen diegun aztertu nahi dut, nola kontsumitzen ditugun irudiak. Gaur egun, bizkor doaz irudiak bata bestearen atzetik, haiei buruz gogoeta egiteko astirik eman gabe, bigarren begiratu egiteko tarterik eman gabe.

Errealitatearen narratiba modura irudiak gailentzen diren gizarte honetan, ekintza bitala da, baita oldarkorra ere, haien adierazpen-ahalmenaz ohartzea. Erritmo ezin biziagoan partekatzen eta kontsumitzen ditugu irudiak. Eta ez dago irudi tolesgaberik, subjektibotasun eta asmo jakinetatik libre dagoenik.

Hala, gu irudikatzen gaituena eta gure burua irudikatzekeo dugun modua egia bihurtzen da, eta, batzuetan, baita sinesmena ere. Begirada hori deseraikitzea prozesu kolektibo beharrezkoa, eta, nire proiektuetan, pertsonala da. Ilustrazioa da xede hori lortzen laguntzen didan tresna, eta orobat laguntzen dit bestelako narratiba batzuk eraikitzen, aniztasunaren, feminismoaren eta giza eskubideen ikuspegitik», Higinia Garay artistak dioenez.

////////////////////////////////////
Martxoak 15 > Maiatzak 15
Plaza Arriquirar (Fatxada)
Sarrera dohainik
////////////////////////////////////

 www.higinia.com

 @higiniagaray

 @higiniagaray



HIGINIA GARAY
AKA HIGI VANDIS

(Higi Vandis) ilustratzaile eta diseinatzaile grafiko modura ari da Bilbon, gai sozial eta

feministan espezializaturiko bere estudioaren buru, 2013az geroztik. Arte Ederretako ikasketak egin zituen Euskal Herriko Unibertsitatean, eta aldizkarien diseinu grafikoko master bat egin zuen Madrilgo Instituto Europeo de Diseño ikastegian, MKL design estudioan diseinatzaile-lanetan ari zela, aldi berean. Askotariko euskarriak erabiltzen ditu artistak lanerako, hala nola kartelak, dokumentalen karatulak eta diskoen azalak. Txinatar tinta eta urmargoak baliatzen ditu, nagusiki, baina baditu beste teknika batzuek egindako diseinuak ere.

Higinia Garayren lana interesgarria iruditzen bazaizu, zatoz AzShopera: euskal artistak egindako ilustrazioekin atondutako jatorrizko laminak, kamisetak eta panpinak aurkituko dituzu.

Naiara Goikoetxea

Ilustrazioa



Argazkia: Naiara Goikoetxea

Naiara Goikoetxea artista grafikoak teknika mistoko konposizio bat proposatu du Fatxada proiekturako, hain zuzen, hiru pieza independentez eratuta dagoen baina konposizio bakarra den lana.

Proposamena Arrikibar aldeko fatxadan egongo da ikusgai, maiatzetik uztaiera arte. Lanaren inspirazioa dira adierazpide jakin batzuek helarazten dizkiguten sentsazioak, eta desalienatzeko bide gisa haietara jotzeko dagoen beharrizan gero eta handiagoa.

«Normalean, fotografia, ilustrazio eta diseinuko teknika desberdinak nahasten ditut, baina proiektu honetan ilustrazioa gailendu nahi dut. Nire obra skatearekin lotu nahi dut, batzuetan behar izaten dugun ihes sentsazio hori transmititzeko».

Naiara Goikoetxearen interbentzio artistikoa Fatxadan smARTplaces programako eta Dortmund U arte zentroarekin lankidetzan egindako 'Art of Skate' proiektuaren barnean ere kokatzen da. Informazio gehiago, 71 orria

////////////////////////////////////

Maitzak 15 > Uztailak 15

Plaza Arriquirar (Fatxada)

Sarrera dohainik

////////////////////////////////////

 @naigoik

 iamnai.com

////////////////////////////////////



NAIARA GOIKOETXEA Arte Ederretan lizentziatu zen, eta Bartzelonan diseinu grafikoko masterra egin ondoren, Bilbon kokatu zen, arte-galeria batean zuzendaritza- eta komisariatza-lanak egiteko. Gero, freelance gisa aritu zen, eta, gaur

egun, lan pertsonala eta arlo profesionaleko lanak uztartzen ditu, hainbat bezerorentzat arituta, hala nola skate marka, diskoetxe, argitalpen, eta beste espazio batzuentzat.

Era askotako lanak eta teknikak jorratzen ditu: hala ilustrazioa, nola diseinu grafikoa edo fotografia, eta eskulana eta teknologia nahastuta.

Musika, zinema eta skatea dira haren zaletasun handiak, eta sarritan islatzen dira haren sorkuntza-lanetan.

Gaur egun, lehenengo liburu idatzia eta ilustratua prestatzen ari da, eta berak ekoiztako musikarekin batera aterako du.

////////////////////////////////////

Fatxada proiektua Zentrotik hedatzen da, eta beste espazio batzuekin jartzen da harremanetan, esaterako, AzShopekin, parte-hartzen duten artistek egindako piezak aurkitu ahal izango baitituzu hor.

**SMART
PL/CES**

Co-funded by the
Creative Europe Programme
of the European Union



ARTE GARAIKIDEA / EGONALDI ARTISTIKOAK (astl.)

consonni radio Az-rekin



consonni editoriala Az-ko kolektibo egoiliarra da 2018az geroztik. Horiek horrela, [consonni radio con AZ](#) irratia sortu da, hitzarekin eta irratia entzutearekin esperimentatzeko eta kultura kritikoa zabaltzeko xedez.

«Entzun streaming bidez, edo zatoz saioaren bat zuzenean entzutera, atarian kokatutako gure irradi-estudio atseginean grabatzen ari garen bitartean. Gainera, online ere gaituzu entzungai, consonniren webgunean, Az-renean, edo ivoox moduko irradi-plataformen bidez».

Alicia San Juan kazetariaren Voces en el jardín (Ahotsak lorategian) saioak atal gehiago edukiko ditu 2019. urtean, eta hiru transmisio berri izango dira.

Alde batetik, soinu-artista eta ekoizlea den Xabier Erkiziak irratari buruzko saio bat izango du: Zerutik hurbil ez da ondo bizitzen. Eterraren istorioak.

Proposamen honetan, irratia sorreratik izan dituen eta izan zitzakeen formak berrazteruko ditu, XX. mendeko zenbait pertsonaiaren bidez

Zer egingo luke Barbarellak? Horixe da itzultzaile eta Ansible Fest zientzia-fikzio feministako jaialdiaren antolatzaileetako bat den Arrate Hildagoren soinu-espazioa. Gaur egungo feminismoko funtsezko gaiak zehatz aztertzen ditu, zientzia-fikzioaren bidez. Bisturia eskuan, testu espekulatibo bat hartu, eta eztabaida ateratzen du, beste fikzio batzuetan eta gaur egungo pentsamendu feministan haren mutazioak bilatzeko. Arraterekin batera, Laura Lazcano kritikaria egoten da, ikus-entzunezkoei eskainitako atalean.

Programazioa osatzeko, beste saio bat egongo da, hain zuzen, martxoaren 1ean amaitu zen deialdi publikoaren emaitza, baina oraindik erabaki gabe dago. Informazioa Azkuna Zentroaren eta consonniren web-orrian emango da aditzera.

consonni

////////////////////////////////////

Asteartero

18:00

Kulturen Ataria

Sarrera dohainik

////////////////////////////////////

 www.consonni.org

 [@consonniart](#)

 [@_consonni_](#)

 [@_consonni_](#)

 [consonni radio](#)

consonni
— RADIO

Komisariotzaren Nazioarteko Sinposioa

Erakusketaren saiakera (1977-2017)

Call for papers

(1977-2017)
ERAKUSKETAREN SAIOA
EL ENSAYO DE LA EXPOSICIÓN
THE PAPERS OF THE EXHIBITION

KOMISARIOTZAREN NAZIOARTEKO SINPOSIOA
SIMPOSIO INTERNACIONAL DE COMISARIADO
INTERNATIONAL SYMPOSIUM ON CURATING

Erakusketaren saiakera (1977-2017) Azkuna Zentroak eta Bulegoa z/b ekimenak elkarlanean landutako proiektu bat da. Haren bidez, 1977. eta 2017. urteen artean izandako erakusketa zehatz batzuk aztertu nahi dira. Horretarako, nazioarteko topaketa batzuk izaten ari dira, bakoitza hamarkada batean ardaztuta.

Orain arte, bi topaketa izan dira: lehena, Atarikoaren formatuan, eta bigarrena, 1977. eta 1987. urteen arteko hamarkadari eskainia. 2019ko uztailaren 9 eta 10ean izango den topaketan, 1987-1997 hamarkadako kasuak aztertuko dira.

1987-1997 aldiko urteetan, hurrengo hamarkadetan eragin bizia izan zuten aldaketa batzuk jarri ziren abian: 1989an Berlingo harresia erori ondoren izandako berrantolamendu geopolitikoa eta, ondorioz, ideologiaren amaieraren aldarrikapena, globalizazioko prozesuen azkartzea, HIESAK eragindako krisia... Artearen arloan ere aldaketen prozesu hori nabarmen sentitu zen.

Euskal Herriari dagokionez, hamarkadaren hasieran, Arteleku jarri zen abian 1987an, Donostian; eta hamarkadaren amaieran, berriz, Guggenheim Bilbaok zabaldu zituen ateak, hiriaren eredu global berri bati hasiera eman zion museoa, turismoa eta kulturaren kontsumoa erakarpen gisa hartzen dituen ereduari.

2019ko topaketetan, parte hartzeko modalitate berria izango dugu, komunikazioen bidezkoa, eta, horretarako, nazioarteko deialdia egingo dugu apirilaren 1etik maiatzaren 12ra arte.

Komunikazioak hautatuko dira, hautapen-batzordeak haien laburpenak zehatz berrikusi ondoren; eta Azkuna Zentroak, Bulegoa z/b ekimenak eta Euskal Herriko Unibertsitateak eratuko dute batzorde hori.

////////////////////////////////////
Apirilak 1 > Maiatzak 12
////////////////////////////////////

CALL FOR PAPERS

Proposamenak bidaltzea:
Apirilaren 1etik maiatzaren 12ra arte.
Onartutako proposamenak argitaratzea: Maiatzak 19.

TOPAKETA
Uztailak 9, asteartea eta 10, asteazkena.
Informazio gehiago:
www.azkunazentroa.eus

////////////////////////////////////
Komunikazioen jakinarazpenak
azkunazentroa@azkunazentroa.eus
e-postara bidali behar dira, dokumentu hauekin batera:

Datu pertsonalak:

Curriculum laburtua (gehienez, orrialde bat).

Proposatutako komunikazioaren laburpena (gehienez, 1.000 hitz).

GIZARTEA

Gau Zuria

Aurten ere, Gau Zuria izango da Azkuna Zentroan, hiriaren sorreraren urteurrena gogoratzeko Bilbok prestatutako programa kulturala. Asteburu osoan, jarduera ugari egingo dira gauetz, hiriko tokirik enblematikoenetan, parte-hartzean oinarritutako esperientzia desberdinak eta bereziak eskaintzeko.

Ekainak 15 eta 16
Larunbata eta igandea

Informazio gehiago:
www.bilbao700.eu



basque Fest

Euskal kulturaren eta abangoardiaren jaialdia

Kulturen Ataria izango da Aste Santuan izaten den basque FEST euskal kulturaren eta abangoardiaren jaialdiaren laugarren edizioaren agertokietako bat.

Apirilak 17, asteazkena

- 19:30 Gonbidatutako jaialdia: Errobiko Festibala, Itsasu (Lapurdi)
20:00 Kalakan & Khamiren kontzertua

Apirilak 18, osteguna

- 12:30 Haur-ikuskitza: Enaren Kontuak
18:00 Zertzeladak ikuskizuna, Bilboko Txistularien Udal Bandaren eskutik, eta harekin batera izango diren Oinkari Dantza Taldearekin, Sestaoko Birakari erraldoiekin, Aitor Furundarena akordeoilariarekin eta Nerea Ibarzabal bertsolariarekin.
22:00 Niko Etxarten kontzertua

Apirilak 19, ostirala

- 12:30 Haur-ikuskitza: Circo-Teatro Prozak
18:00 Enkarguz ikuskizuna, Andoni Egaña eta Xabier Zabalarekin
22:00 Audienceren kontzertua

Apirilak 20, larunbata

- 12:30 Haur-ikuskitza: Plaza Girotz
18:00 Haur-ikuskitza: Plaza Girotz
22:00 Oreka TX eta San Salvadorren kontzertua

Apirilak 17 > 20
Asteazkena > Larunbata

Kulturen Ataria
Sarrera dohainik

Ikusi Basque Fest jaialdiaren
programa osoa hemen:
www.basquefest.eu







The general (1926)

ZINEMA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK /
ZINEMATEKA **URT. > ABE.**

Zinemaren historiako 50 harribitxi

**Aurrera jarraitzen du historiako filmik onenetako
batzuk berrikusten dituen zikloak**

Hamargarren urtemugaren atarian, Azkuna Zentroko Zinematekak zeharkako ibilbide askotarikoa eta berezia proposatu du, zinemaren historiako pelikularik onenetako batzuk hautatuta. 120 urtetik gorako historia murriztea, eta berrogeita hamar izenburu inguru hautatzea ezinezko lana da, eta, hala ere, argitalpen espezializatu batzuk maiz egiten dute. 'Zinemaren historiako 50 harribitxi' programaren xedea ez da hori izan. Gehienbat, lan zinematografikoaren egiletasun plurala nabarmendu nahi izan da, eszenaratzeko arduradunak filmean duen garrantzia sublimatzeko irizpide tradizionala bazterrean utzita (50eko hamarkadaren erdialdeko iraultza cahieristatik aurrerakoa).

Hala ere, zuzendariaren zereginari erreparatuta, ez da hain neketsua izan da maisu-lan batzuk hautatzea: Murnau eta Ford, Varda, Fellini eta Riefenstahl aintzat hartuta, besteak beste. Denbora ere izan dugu zenbait gidoiaren bikaintasuna onartzeko, esaterako, Graham Greenek, Suso Cecchi d'Amicok, Lillian Hellmanek edo Marguerite Durasek sinatutakoak.

Zortzi astetan, interpretatzaileei ere txanda iristen zaie. Sarritan, garrantzia kentzen zaie bidegabeki, tresna hutsak balira bezala, baina Liv Ullmann eta Bibi Andersson (Persona bikainean), Bette Davis eta Joan Crawford (What ever happened to Baby Jane?), Greta Garbo eta Carole Lombard (Estatu Batuetako zinema klasikoko gailurreko unean Ninotchka eta To be or not to be komediekin) aktoreen talentua baliagarria izan da gidioak definitutako eta Ingmar Bergman, Ernest Lubitsch edo Robert Aldrich egileen lanikidetzaz eszenaraturako pertsonaien garrantzia handitzeko. Ezinbestez galdetuko diogu geure buruari nolakoa izango ote zen Michelangelo Antonioni bikainak zuzendu zuen zinemarik onena Monica Vittik (Jeanne Moreaurekin, La notte filmean) eman zion indarrik gabe. Hobe izango ote zen aktore ilehori bat, Alfred Hitchcock-ek nahiago izaten zituen horietako bat? Hobe Madeleine Elster (eta hobe Judy Barton) Kim Novak baino? Elia Kazan-en agindupeko edozein aktore gaztek lortuko ote zuen Natalie Woodek Splendor in the grass lanean lortu zuena

////////////////////////////////////
BIGAREN HIRUHILEKOA
Apirilak 3 - ekainak 28
Asteazkenak eta ostegunak
Golem Alhóndiga Zinemak
4,5€ / 3,5€ Az txartelarekin
Sarrerak: Golem Alhóndiga
Zinemako txarteldegian eta
www.golem.es
////////////////////////////////////

ZINEMATEKA PROGRAMA

Sunset Boulevard (1950)



Apirilak 3, asteazkena / 17:30
Apirilak 4, osteguna / 19:00

Joe Gillis bigarren mailako idazle gaztea da. Zorren hartzekodunen jazarpenetik ihesi, zine mutuko izar izandako Norma Desmonden etxean babestuko da ustekabeen. Izar ohia errealitatetik kanpo bizi da, Max zerbitzari leialaren konpainia bakarrarekin. Une horretatik aurrera, aktoreak berak idatzitako gidoia bat zuzentzeko eskatuko dio Joeri; gidoi horrekin zinemara itzuli nahi du.

110'. DCP.

Z: Billy Wilder

G: Billy Wilder, Charles

Brackett, D. M. Marshman, Jr.

A: Gloria Swanson, William Holden, Erich von Stroheim, Nancy Olson, Fred Clark, Lloyd Gough, Jack Webb, Franklyn Farnum, Cecil B. DeMille, Buster Keaton

The general (1926)

3 de abril, asteazkena / 20:00
4 de abril, osteguna / 17:30

Johnny Gray tren-gidaria da AEBetako hegoaldean, eta bi amodio handi ditu: neska bat (Anabelle Lee) eta lokomotora bat (General-a). 1861ean Ondorengotza Gerra lehertzen denean, Johnnyk armadarako



izen eman nahi du, baina armadak erabakitzen du atzeguardian lan hobea egingo duela. Orduan, Anabellek koldarra dela uste du. Ipartar komando batek 'General-a' lapurtu eta Anabelle bahitu duenean izango du makinistak bere benetako balioa erakusteko aukera. Zalantza izpirikizan gabe, Johnnybeste lokomotora batera igoko da, eta yankien atzetik abiatuko da haren bi maitiak berreskuratzera.

67'. DCP.

Z: Clyde Bruckman, Buster Keaton

G: Buster Keaton, Clyde Bruckman

A: Buster Keaton, Marion Mack, Glen Cavender, Jim Farley, Frederick Vroom, Charles Henry Smith, Frank Barnes, Joe Keaton, Mike Donlin, Tom Nawn

Paris, Texas (1984)



Apirilak 10, asteazkena / 17:30
Apirilak 11, osteguna / 18:30

Gizon bat Texasko basamortuan dabil, nor den gogoratu gabe. Haren anaia bere bila dabil, eta hark lau

urte lehenago, emaztea eta semea utzi zituenean, nolako bizitza zuen oroitzeko ahaleginak egingo ditu. Memoriaberreskuratzen hasten den neurrian, lehen ezagututako pertsonekin elkartu ahala, bere bizitzari berriro heltzeko beharra sortuko zaio.

145'. Blu-ray.

Z: Wim Wenders

G: Sam Shepard

A: Nastassja Kinski, Harry Dean Stanton, Dean Stockwell, Aurore Clement, Hunter Carson, Bernhard Wicki, Sam Berry, Claesbie Mobley, Viva Auder, John Lurie

To be or not to be (1942)



Maiatzak 15, asteazkena / 17:30
Maiatzak 16, osteguna / 19:30

Lehen Mundu Gerra (1939-1945). Varsovia, alemaniarren okupazio garaian. Siletsky espioiak Gestaporen zerbitzura egiten du lan, eta Erresistentziaren aldeko kideen izenak jasotzen dituen zerrenda entregatzeko zorian dago. Joseph Tura aktore poloniarra, Hamleten interpretea, eta, era berean aktore ezaguna den Maria Turaren senarra dena, hori ekiditen ahaleginduko da. Bere konpainiako aktoreen laguntzarekin, Erhardt koronel krudela eta Siletsky dela sinestaraziz, SSetako kuartel nagusian sartuko da.

93' 35 mm

Z: Edwin Justus Mayer

G: Edwin Justus Mayer

(Historia: Melchior Lengyel
A: Carole Lombard, Jack Benny, Robert Stack, Stanley Ridges, Felix Bressart, Lionel Atwill, Sig Ruman, Tom Dugan, Charles Halton, George Lynn

What Ever Happened to Baby Jane? (1962)

Zer gertatu zitzaion Baby Janeri?



Maiatzak 22, asteazkena / 17:00
Maiatzak 23, osteguna / 19:30

Jane eta Blanche Hudson ahizpak Hollywoodeko izarrak izan ziren haurtzaroen, baina euren ibilbideak oso bestelakoak izan ziren gero. Janerekin ez zen inor gogoratzen hazi zenean; Blanche, aldiz, aktorea ospetsua zen. Auto-istripu misteriotsu baten ondoren, Blanche gurgildun-aulkian geratu zen, bere ahizpa Janek zaintzen zuen, eta hura oinazetza zen honen zaletasuna.

134' / 35 mm

Z: Robert Aldrich

G: Lukas Heller (Novela: Henry Farrell)

A: Bette Davis, Joan Crawford, Victor Buono, Wesley Addy, Julie Allred, Anne Barton, Marjorie Bennett, Bert Freed, Anna Lee, Maidie Norman, Dave Willock, William Aldrich, Russ Conway, Maxine Cooper, Robert Cornthwaite, Michael Fox, Gina Gillespie, Barbara Merrill, Don Ross

Letter from an unknown woman (1948)

Emakume ezezagun baten gutuna



Maiatzak 29, asteazkena 17:30
Maiatzak 30, osteguna 19:30

Viena, 1900. Stefan Brand piano-jole ospetsua da eta emakume baten gutuna jaso du; iraganean maitasunezko harreman bat izan zuen emakume horrekin, baina piano-jolea ez da gogoratzen. Lisa ezezaguna da berarentzat, bere bizitzatik igaro eta inolako aztarnarik utzi ez duen norbait. Baina nerabezaroen ezagutu zuen musikari gazte hartaz erabat maiteminduta jarraitzen du emakumeak.

87' / DCP

Z: Max Ophüls

G: Howard Koch (Relato: Stefan Zweig)

A: Joan Fontaine, Louis Jourdan, Mady Christians, Marcel Journet, Art Smith, Carol Yorke

Vertigo, 1958

Bertigoa



Ekainak 5, asteazkena / 17:00

Ekainak 6, osteguna / 19:30

San Frantziskoko poliziako

detektibe Scottie Fergusson (James Stewart) bertigoa du. Gaizkile baten atzetik doazela, lankide bat erlaintzat batetik erortzen da amildegira. Hori ikusita, Scottiek erretiroa hartzea erabakitzen du. Gavin Elster-ek (Tom Helmore), ikastetxeko lagun zahar batek, kontratua egiten dio itxuraz oso erraza den kasu batez arduratzeko: Elster-en emazte Madeleine (Kim Novak) jagon beharko du. Emakume eder hori bere iraganarekin obsesionatuta dago.

120' 35mm

Z: Alfred Hitchcock

G: Alec Coppel, Samuel Taylor, Maxwell Anderson (Novela: Pierre Boileau, Thomas Narcejac)

A: James Stewart, Kim Novak, Henry Jones, Barbara Bel Geddes, Tom Helmore, Raymond Bailey, Ellen Corby, Lee Patrick, Konstantin Shayne

Persona, 1966

Pertsona



Ekainak 12, asteazkena / 17:30
Ekainak 13, osteguna / 19:30

Elisabeth (Liv Ullmann), antzerkiko aktorea ospetsua, ospitaleratu egin behar izan dute, "Electra" antzezlanean ahotsik gabe geratu delako. Zenbait proba egin ondoren, diagnostikoa ona da. Baina hitzik esan ezinda jarraitzen duenez, ospitalean jarraitu beharra dauka. Alma (Bibi Andersson) izeneko erizain batek zaintzen du, eta, Elisabethen mututasuna

hausteko asmoz, etengabe hitz egiten dio.

85' / 35mm

Z: Ingmar Bergman

G: Ingmar Bergman

A: Liv Ullmann, Bibi

Andersson, Margaretha Krook,

Gunnar Björnstrand, Jörgen

Lindström

Ninotchka, 1939



Ekainak 19, asteazkena / 17:30

Ekainak 20, osteguna / 19:30

Iranoff, Buljanoff eta Kopalski kamaradak Parisera bidali dituzte, Frantziako hiriburuan bizi den Swana dukesa handiari bitxiak konfiskatu, eta dirua lor dezaten Errusiako gobernuarentzat. Hiru kamaradak luxuzko hotel batean hartu dute ostatu, Frantziako auzitegiek bitxiak benetako jabea nor den erabakitzen duten bitartean. Orduan, Errusiako gobernuak Nina 'Ninotchka' Ivanovna Yakushova bidaliko du, dena konpontzera.

110', 35 mm

Z: Ernst Lubitsch

G: Charles Brackett, Billy Wilder, Walter Reisch (Historia: Melchior Lengyel)

A: Greta Garbo, Melvyn

Douglas, Bela Lugosi, Ina

Claire, Sig Ruman, Felix

Bressart, Alexander Granach,

Rolfe Sedan, Gregory Gaye,

Edwin Maxwell, Richard Carle

La notte, 1961

Gaua

Ekainak 26, asteazkena / 17:30

Ekainak 27, osteguna / 19:30



Bikote-harremanetako krisian dauden senar-emazte burges batzuen eguneroko bizitzaren erretratu. Milanen, ospitalean hilurren dagoen lagun bati bisita egin ondoren, Giovanni Pontano (Marcello Mastroianni) idazlea jai batera joan da, bere azken liburuaren argitalpena dela-eta. Bitartean, haren emazte Lidia (Jeane Moreau) aspaldi bizi izandako tokia ikustera hurbildu da. Gero, gauetz, jai batera joango dira biak, Gherardini jaunaren etxera, eta maite jolasean hasiko dira: Giovanni, anfitrioiaren alabarekin, eta Lidia, playboy batekin.

122' 35 mm

Z: Michelangelo Antonioni

G: Tonino Guerra, Michelangelo

Antonioni, Ennio Flaiano

A: Marcello Mastroianni,

Jeanne Moreau, Monica Vitti,

Bernhard Wicki, Maria Pia

Luzi, Rossy Mazzacurati

Splendor in the grass, 1961

Distira belarrean



Uztailak 3, asteazkena / 17:00

Uztailak 4, osteguna / 19:30

Kansaseko herri batean,

giro sozial desberdinetako

bi gaztek elkar maite dute, eta elkarrengandik sekula ez banatzea erabaki dute. Hala ere, haien senideak ez daude ados, eta, azkenean, haien sentimenduekin zerikusirik ez duten interes batzuek erabakiko dute haien patua.

124' 35 mm

Z: Elia Kazan

G: William Inge

A: Natalie Wood, Warren

Beatty, Pat Hingle, Audrey

Christie, Barbara Loden,

Zohra Lampert, Sandy Dennis,

Phyllis Dillier, Gary Lockwood.

INFORMAZIOA

Film guztiak jatorrizko bertsioan proiektatuko dira, gaztelaniaz azpiztitulatuak (JBGA).

Zinematekako programazioan azken orduko aldaketak egon daitezke.

+ INFO:

www.azkunazentroa.es

4,5€ / 3,5€ Az txartelarekin

Sarrerak: Golem Alhóndiga

Zinemako txarteldegian eta

www.golem.es

Zinema-aretoa filmaren ematen hasi baino 15 minutu lehenago zabalduko da. Ikusleei mesedez eskatzen diegu minutu batzuk lehenago etortzeko, txartellehiatutako ilarak saihesteko.

Gainerako ikusleekin errespetuz jokatzeko, behin saioa hasi ondoren, ezin izango da aretora sartu. Ezinbestekoa bada, Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilboak berretzat gordetzen du eskubidea programatutako jarduerak bertan behera uzteko, aldatzeko edo atzeratzeko, aldez aurretik bere web-orrian jakinarazita: www.azkunazentroa.es

LABURDURAK

Z: Zuzendaria | G: Gidoilaria

A: Aktoreak

ZINEMA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK

Bilboko Zinemaldi Fantastikoa - FANT

FANT - Bilboko Zinemaldi Fantastikoaren 25. edizioa maiatzaren 2tik 11ra arte izango da. Sekzio ofiziala Azkuna Zentroko Golem zinemetan egingo da.

Gainera, zinemaldia hasi aurretik, ekitaldia antolatu duen Bilboko Udalak hainbat jarduera egingo ditu hiriko beste jaialdi edo erakunde batzuekin lankidetzan. PREFANT programa horren zati bat Azkuna Zentroan egingo da. Ikusi informazioa 65 eta 87 orrialdeetan.

Maiatzak 2 > 11

Golem Alhóndiga Zinemak
Sarrerak: Golem Alhóndiga
Zinemako txarteldegian
eta www.golem.es

**Ikusi Fant jaialdiaren programa osoa
hemen: fantbilbao.es**



ZINEMA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK

Zinemagileen artean

Emakumeek egindako zinemaren 8. karabana

Kultura Communication y Desarrollo KCD ONGDk Zinemagileen artean aurkeztuko du berriz, Emakumeek egindako Zinemaren Karabana. Aurten, gerra lantzen duten 5 film izango ditugu ikusgai, Katalunia, Egipto, Eslovenia, Madagaskar eta Suitzatik hurbilduko diren zuzendariekin batera.

**Maiatzak 13 > 17
Astelehena > ostirala**

Golem Alhóndiga Zinemak
Entradas: Golem Alhóndiga
Zinemako txarteldegian eta
www.golem.es

**Programari buruzko informazio
gehiago hemen: www.kcd-ongd.org**



ZINEMA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK / CICLO MONOGRÁFICO
MAI. 15 > UZT. 4 (astz. > ostg.)

Irudikatutako hiria

Zinemaren bidez hiri bat eraikitzeko saioa



Hiria eta zinema. Oskar Alegria zinemagileari gonbit egin diogu komisario-lanak egin ditzan, bi osagai horiek oinarritzat hartuko dituen ziklo batean, harreman hori ulertzeko funtsezkoak diren filmen sail bat aukeratuta.

«Monopoly bat izango balitz bezala, ziklo honek filmez osatutako hiriko mapa bat eraikiko eta proiektatuko du. Egun batean, kale bat izango da protagonista; beste egun batean, plaza bat; aste batean, film batek hotel baten aipamena egingo digu; hurrengoak espetxe bat aurkeztuko digu; parke bat ere egongo da... Eta, horrela, piezaz pieza, irudiz osatutako hiri baten gakoak batuko dituzte film guztiek, pantailan baizik ezin egin daitekeen eran.

Gure irudi eta antzera eraikitako hiri horren bidez, dokumental garaikidea erabiliz, hausnarketa filmikoa piztu nahi da, gizakiaren asmakuntzarik handienetako bati buruz: Greziako polisari buruz, kalkuluen arabera 2050ean mundu osoko biztanleriaren hiru lagunetatik bi halako batean biziko baitira.

Programan paradoxa eta jokoa erabiliko ditugu, irudikatuko dugun hirian israeldar ile-apaindegi baten hondoan kubatar hotel bat egongo baita, eta errusiar museo batetik oinez gerturatuko baikara Parisko hilerri batera: Père-Lachaise-ra. Hortik abiatuko da zikloa, Heddy Honigmann zinemagilearen Forever (2006) filmaren bidez, hiria isilen dagoen eta, zalantzarik gabe, bere altxorrik handienetako bat gordetzen duen tokitik: Marcel Proust, Oscar Wilde, Jim Morrison, Maria Callas eta beste batzuen hilobietatik... Erretratu bisuala ez da hildakoen hitzekin geratzen, jarraitu egiten baitie bisitaririk kezkatuenei.

Le Corbusier-ek esan zuenez, hiriak zerua eta espazioa ditu, altzairua eta zementua izan aurretik; eta ametsak arretagune nagusia izango dira guretzat, kaleen eta eraikinen ibilbidea marrazterakoan. Gianfranco Rossiren Sacro Gra (2013) filmean agertzen direnen moduko ametsak, film horrek poetikotasun handiz deskribatzen baitu Erroma hiria barnean hartzen duen ingurabide handia, hiri eternoa murrueetatik kanpo hasten baita dardarka eta taupadaka. Harekin bilduko dugu gure zikloaren azken mapa».

Oskar Alegria. Zikloko komisarioa

////////////////////////////////////

Maiatzak 15 > Uztailak 4, asteaztena eta osteguna

Golem Alhóndiga Zinemak

4,5€ / 3,5€ Az Txartelarekin
Sarrerak: Golem Alhóndiga
Zinemako txarteldegian eta
www.golem.es

////////////////////////////////////

[Ikusi ziklo honen programazio osoa hemen: azkunazentroa.eus](http://azkunazentroa.eus)

ARTE BIZIAK / MUSIKA ETA SOINUA **MAI. 18** (lar.)

Julia Eckhardt & Asmus Tietchens

*Hotsetan, musika esperimentaleko
programa*



Asmus Tietchens musikari alemaniarrek eta **Julia Eckhardt** artista belgikarrak beren azken lana aurkeztuko dute musika esperimentaleko Hotsetan programaren barruan, programa horren xedea hurbileko nahiz nazioarteko artisten soinu-lanak ezagutzera ematea izanik.

Asmus Tietchens 1947an jaio zen Hamburg. 1960ko hamarkadan, modu autodidaktan hasi zen esperimentatzen sintetizagailuekin eta zinta-loopekin, eta era askotako lanak sortu ditu bere ibilbide luzean barrena. 1980ko hamarkadan, lan batzuk egin zituen erritmoa eta harmonia uztartuz Sky zigiluarentzat, eta, hamarkada horren erdialdean, Alemaniako musika industrialeko giro aktiboan murgildu zen. **Gaur egun, musika elektroakustikoko figurarik garrantzitsu eta itzaltsuenetako bat da, eta jardunean jarraitzen du oraindik.**

Julia Eckhardt, musika konposizio eta inprobisazio garaikidearen alorrean aritzen den biola jolea da. Ikasketak osatu ondotik, ganbara musikari eskainitako hainbat talderekin jo izan du, nagusiki garaikideak, baina baita Belgikako Orkestra Nazionalarekin ere.

1995ean soinu arteari eta musika esperimentalei eskainitako Q-02 espazioa ireki zuen Bruselan eta oraindik bertako arduradun artistiko gisara egiten du lan. Bestek beste, Phill Niblock, Pauline Oliveros, Stevie Wishart, Jennifer Walshe, Wandelweiser kolektiboa, Christian Wolff edo Antony Coleman bezalako konposatzaileekin lan egin izan du, eta György Kurtag, John Cage, Chiyoko Szlavnic, Anne Wellmer edo Radu Malfattik idatzitako bakarkako lanak interpretatu izan ditu. Horrez gain, azken 15 urteotan nazioarteko inprobisazio askearen eszenan aktiboki parte hartu du eta Manfred Werder, Normisa Pereira da Silva, Angharad Davies eta Stefan Thut-ekin batera musika kontzeptualari eskainitako Incidental Music taldeko kide da. Berlinen hazi ondotik, egun Bruselan bizi da.

////////////////////////////////////

Maiatzak 18, larunbata

19:00

Lantegia 2

8€ / 6€ Az Txartelarekin
Sarrerak: Infopuntua eta
www.azkunazentroa.eus

////////////////////////////////////



www.q-02.be/en/artist/julia-eckhardt



www.tietchens.de

ARTE BIZIAK / DANTZA **MAI. 23** (ostg.)

Núria Guiu

Likes



Argazkia: Alice Brazzil

Like batek ordezkatzeko al zaitu? Sare sozialetan metatu dituzun *like* edo jarraitzaile kopuruak definitzen zaitu zu? Zenbat balio du 'Gustatzen zait' batek? Non dago errealitatearen eta digitalaren arteko hesia? Bartzelonako **Núria Guiu** dantzari eta koreografoak *Likes* pieza aurkeztuko du Azkuna Zentroan: buruz burukoa aldarrikatzen du, Interneteko intoxikazioaren aurrean.

Likes lanaren abiapuntuan, Youtubeko bi fenomeno ezagunen azterketa dago: cover dantza, batetik, eta hainbat yoga teknikari buruzko tutorialak eta bideoak, bestetik.

Ikuspegi sozio-antropologiko batetik, artistak ikusleei ekiten die, gure gizarte digitaletan like batek duen balioaren inguruko arrazoibidea eraikiz. Aro digitalean gorputzak duen presentziari buruzko begirada koreografiko freskoa da lan hau.

Dantza, bereziki pop kulturari eta musikari lotutako dantza, sare sozialen bidez jendartearen zabal hedatu den gertakaria da. Koreografiako urratsen itxurazko soiltasunak malgutasun kulturalari ematen dio bide, cover dantzariak haietaz jabetu, eta dantzatzen dituztenean. *Likes* lanaren abiapuntuan, koreografia / cover dantza horietako batzuk daude, batetik, eta sarean oso hedatuta dagoen beste gertakari bat, bestetik, hain zuzen, yoga, Interneten bidez estilo desberdinak zabaltu, jendarteratu eta hibridatu baitira.



NÚRIA GUIU Núria Guiu dantzaria eta koreografoa da, Bartzelonako Teatroko Institutuan graduatua. Dantzari gisa egin duen ibilbidean profesionalean, konpainia hauetan egon da, besteak beste: IT Dansa edo La Veronal, Cullberg Ballet (Se), Gisele

Vienne (Fr), Carte Blanche Dance Company (No), Jasmin Vardimon (Uk), Kobalt Works (Be), Ingrid Fiksdal (no). 2009 urtetik 2010era bitartean, Kamuyot proiektuan hartu zuen parte; Batsheva Dance Company konpainian ikusle nerabeentzat bideratutako pieza bat zen. 2012an La Muda sortu zuen, Osloko Operan estreinatutako talde-pieza bat. 2014an Portal eratu zuen, eta Bergeneko Oktoberdans Jaialdian eta Bartzelonako PAMeko Hiroshima Aretoan estreinatu. Haren azken lana, *Likes*, Europako Aerowaves 2018 plataforman aukeratu dute.

Laguntzailea:



Maiatzaren 23an, ostegunarekin, 13:00ean, Núria Guiu piezaren emanaldi berezi bat egingo du ikastetxeetako ikasleentzat.

ARTE BIZIAK / MUSIKA **MAI. 24** (ostr.)

Linn Da Quebrada



Argazkia: Photo_NubeAbe_Pajubá

Maiatzean izango dugun proposamen musikala **Linn Da Quebrada** da, zuzenean egiten duen Pajubá ikuskizunarekin. Beltza, transexuala, pobrea, homosexuala, 30 urte ere bete gabe izandako minbizi batetik bizirik aterata. Ez dago **Linn da Quebrada** aurrez aurre izan ez duen oztopo, zailtasun edo aurreiritzirik. Brasilgo artista honek aurre egin nahi dio heteropatriarkatuari eta agerian jarri nahi du transexualitatea, funk dantzaren bidez.

Horrela aurkezten du bere burua Linn Da Quebradak. Brasilgo buru iraultzaile, interpretatzaile urratzaile eta MC miresgarri hau giza askatasunari buruzko hizketaldi unibertsala berritzen aritu da. Artistak Pajubá LPA aurkeztuko du Az-n. Letrak portugesez daude beti bezala, eta sexualitate falozentristaren kritika zorrotza dira, etengabe egiten baitio aipu besteak baino gehiago dela uste duen arrari, umore-ukitu batez eta taburik ez duen sexualitatez gainezka. <<Musika orainari emandako erantzuna ere bada, eta gure ekoizpen musikala bizi garenari, eraikitzen ari garenari eta eraiki nahi dugunari ematen diogun erantzuna da>> azaldu du Brasilgo artistak.

Pajubá da haren azken lana, crowdfunding kanpaina baten laguntzaz argitara emana, elkarlanaren emaitza baita.

«Jende askorekin aritu naiz hau eraikitzen, nire laneko bazkideak izan direnekin, eta finantzazko laguntza eman didate diskoa atera ahal izateko. Albuma inbertsio kolektiboaren ondorioa da, eta oso harro nago horretaz. Nik uste dut hori dela disko honi gertatu ahal zitzaion gauzarik onena».

////////////////////////////////////
Maiatzak 24, ostirala
21:00

Kulturen Ataria (igerilekuaren argi-zuloaren azpian)

10€ / 8€ Az Txartelarekin
Sarrerak: Infopuntua eta www.azkunazentroa.eus

////////////////////////////////////
FITXA ARTISTIKOA

Linn Da Quebrada eta Jub do Bairro (ahotsa), Dj Pininga eta Badsista (cdj-ak, erritmo-kutxa eta teklatuak) eta Dominique Vieira (perkusioa).

////////////////////////////////////
 <https://open.spotify.com/artist/DYG4CSmw7QW2T4TU3NWxAS>

 [mclindaquebrada](#)

 [mclindaquebrada](#)


Laguntzailea:



ARTE BIZIAK / DANTZA **EKAI. 6** (ostg.)

Stéphane Gladyszewski

Corps noir




Argazkia: Nicholas Minns

Corps noir intimitatean murgiltze betea da, gordin-gordinean. Gorputza eszenaratzea da, hainbat ehunduraz, soinu-materiaz, irudiz eta ahotsez osatutako osagarrien eta objektuen zoramen batean, beste hainbat identitate-metafora bezala, azken teknologiaren bitartez helarazten direnak, gainean ezartzeko, tartean sartzeko edo bateratzeko aukerarekin. Subkontzientearen eta memoriaren bazar honetan, piezak aurkezten dira bilduta, sakabanatuta edo itxuragabetuta, norbere fikzioaren erara, solidoen eta likidoen artean, antzigar, izotz eta urez estalitako pantailetan, beroa eta hotza ageri, opakutasuna eta gardentasuna.

Gorputzari eraso egiten zaio: busti, orbandu, xurgatu... eta esku hartzen du: borrokatu, sartu, zapaldu ere bai. Irradiatu. Fisikan, gorputz beltza uhin-luzera guztietan argia guztiz xurgatzen duen objektu bezala definitzen da.

Stéphane Gladyszewski materia bera bihurtzen da, eta autorretratu zatikatu bat sortzen du; hori osatzeko oinarria errealitate izartu baten eta psikearen eraikuntzen konplexutasuna da.



STÉPHANE GLADYSZEWSKI
(Kanada) Arte Ederretako lizentziatura lortu baino lehen, argazkilaritzaren esparruan ikasi eta lan egin zuen. Mugimenduak

erakarrita, bidea urratu zuen dantzan, 'contact improvisation' teknikaren bitartez. 2008an, 'video termal' proiektzio-sistema sortu zuen, lehen aldiz Corps noir proiektuan erabili zuena. Oinarri teknologiko berberak aplikatuta, Chaleur humaine bikoaren koreografia zuzendu zuen, eta Danse à 10 proiektuaren atal bezala aurkeztu. *Tête à tête* lanarekin, Gladyszewskik identitatea eta intimitatearen esplorazioa ikertzen jarraitzen du, zuzeneko ikuskizun baten bidez.

////////////////////
Ekainak 6, osteguna

19:30

Lantegia 2

14€ / 12€ Az Txartelarekin
Sarrerak: Infopuntua eta
www.azkunazentroa.eus

////////////////////
FITXA ARTISTIKOA:

Sorkuntza, instalazioa, irudia
eta interpretazioa Stéphane
Gladyszewski

Laguntzako interpretazioa
(sortzailea) Elizabeth Emberly

Zuzendaritzako eta operazioko
laguntzailea (sortzailea)
Justine Ricard

Argiteria Yan Lee Chan

Soinu-diseinua Jean-Sébastien
Durocher

Aholkularitza artistikoa

Marie-Stéphane Ledoux et Julie
Andrée T.

Programazioa Alexandre
Burton

Fotografia Stéphane
Gladyszewski et Dominique
Malaterre

Produktzioa Stéphane
Gladyszewski et Daniel Léveillé
Danse

Koproduktzioa Tangente, Agora
de la danse, Cirque du Soleil

Laguntzaileak Conseil des
arts et des lettres du Québec,
Conseil des arts du Canada

Produktzio honek DLD -
Daniel Léveillé Danse-ren
laguntza jaso du, garapen eta
zabalkunderako duen babes-
proiektuaren barruan.

Sortu den urtea: 2008

////////////////////
 stephaneg.ca

 [stephane.gladyszewski](https://www.facebook.com/stephane.gladyszewski)

 vimeo.com/sgladyszewski



Canada Council for the Arts
Conseil des arts du Canada



CALO
Conseil
des arts
et des lettres
du Québec

Miguel A. García & Ensemble

Hotsetan, musika esperimentaleko programa



Miguel A. García & Ensemble taldeak bere lana aurkeztuko du hurbileko eta nazioarteko soinu-artisten lana ezagutzera ematen duen Hotsetan musika esperimentalako programaren barruan.

Miguel A. Garcíaren elektronika esperimentalak elikatzen duen gertaera musikala da; instrumentu akustikoak eta ahotsak kasu horretan fagozitate egiten ditu, eta zuzenekoan berriro agertzen dira. Magma elektronikotik sortuta, soinuaren autodeterminaziora arte iristen dira.

Konposizio elektro-akustikoen itxurarekin, kanal askoko elektronikaren eta aldi bereko instrumentazioaren arteko nahasketa honek erreferentzia egiten die musika klasiko garaikideari, musika esperimentalari eta “noise” musikari.

Ordenak eta hierarkiak aldatuz, oso martetarra izanik aldi berean bikaina den film bateko soinu banda moduko bat ematen du.

Erakusketa honetarako, tokiko hainbat artista eta musikarirekin arituko dira elkarlanean; kontzertua baino lehenagotik, elkarrekin egingo dute lan tailer batean.

+info hemen: www.xedh.org/piezas

////////////////////////////////////

Ekainak 8, larunbata

19:00

Auditorioa

8€ / 6€ Az Txartelarekin
Sarrerak: Infopuntua eta
www.azkunazentroa.eus

////////////////////////////////////

 www.xedh.org

////////////////////////////////////


MIGUEL A. GARCÍA aka Xedh Estatuko soinu-artistatik geldiezinetako bat da, eta bere proposamenak instalazioa, konposizioa eta inprobisazio elektroakustikoa hartzen ditu barnean. Bakarka nahiz hainbat taldetan, Europa, Asia eta Amerikako herrialde askotan egin izan du lan, bai eta disko ugari editatu ere.

Aldi berean, programatzaile-antolatzaile moduan, Le Larraskito Klubaren sortzailea da, Zarata Fest jaialdiaren zuzendaria, eta Hotsetan programaren koordinazioko kidea; guztiak ere arriskatzen diren musikak eta horiekin lotutako diziplinak hedatzen aritzen diren plataformak dira.

////////////////////////////////////

Zinema fantastiko esperimentaletik bideo-jokoetara

The Mask of Atlantis



Aurten, FANT - Bilboko Zinemaldi Fantastikoaren 25. edizioa dela-eta, programa berezi bat egongo da zinemaldia hasi aurretik, hiriko erakunde batzuekin -besteak beste, Azkuna Zentroarekin- elkarlanean prestatua.

PREFANT horren barruan *Del cine fantástico experimental a los videojuegos* (Zinema fantastiko esperimentaletik bideo-jokoetara) topaketak egongo dira, *The Mask of Atlantis* bideo-jokoaren sortzaileak diren Mikel Calvo eta Jorge Núñezekin.

Bideo-jokoa Jorge Núñez zinemagilearen *The Mask of Atlantis* (2013) film esperimentalaren egokitzapena da. VHS formatuan grabatuta dago, eta ikuspegi narratiboa Z serieko zineman oinarrituta dago, baina aurri-egoeran. Zinemagilea Mikel Calvo diseinatzaile eta garatzailearekin batera bizi zen, eta azken honek filma ikusi zuenean bideo-jokoaren hizkuntzara egokitzeko proposamena egin zion. Munduak sortzeko 1991ko ZZT editorea erabiliz, bien artean prestatu zuten lana.

The Mask Of Atlantis esplorazioko bideo-joko bat da. Atlantidako maskararen bila dabilen ikertzaile baten abentura lazgarria. Puzzle burokratikoek, leize-zulo arraroez eta gameplay bitxi eta itsaskor batek osatzen dute esperimentu interaktibo honen esperientzia.

Jorge Núñezek eta Mikel Calvok arlo esperimentalean lana sortzeko prozesua eta ikus-entzunezkoaren eta jokoaren arteko desberdintasunak azalduko dituzte. Aurkezpena egin ondoren, bideo-jokoa probatu ahal izango da, eta doan eskuratu ahal izango da Interneten.

PREFANT programaren barruan, fantasia eta beldurrezko bideo-jokoen atzera begirako erakusketa bat dago ikusgai Jokuplay espazioan (Mediateka BBK. 2. Solairua). Informazio gehiago 87 orrialdean.



Apirilak 9, asteartea

19:00

Medialab 2. Mediateka BBK
Sarrera dohainik



 fantbilbao.eus/web

 [FantBilbao](#)

 [fantbilbaoi](#)

 [FestivalFantBilbao](#)

MAIATZAK 2-11 MAYO 2019
FANT 25
ZINEMALDI FANTASTIKOAREN
25. EDIZIOA

KULTURA DIGITALA [API.](#) > [AZA.](#)

Culture Lab

Proiektu artistikoen komunikazio digitala



Azkuna Zentroak Culture Lab antolatu du, arte eta kultura garaikideko profesionalentzako programa, proiektu artistikoen komunikazio digitala nola hobetu aztertzeko, eta prozesu sortzaileak identitate digitalez hornituko dituzten narratibak ikertzeko. Digital Identities-ek zuzendutako laborategi honetan, tresna berriak landuko dira, eduki digitala sortu, eta praktika artistikoa hedatzeko, eta mahai-inguru batean kultura-jarduerak eta horien alderdi digitala aztertuko dira.

Proiektuak aurkezteko deialdia otsailaren 26tik apirilaren 16ra arte dago zabalik.

Laborategi artistiko-digitala

Laborategia maiatzaren 16tik 17ra arte izango da, eta Abhay Adhikari, Sarah Gillett, Sharna Jackson, Ramya Rajaraman, Tom Higham eta Cori Moorek emango dute. Tailer eta jarduera batzuen bidez, aukera emango da proiektu artistikoak ezagutarazteko jakintza digital berriak ikasteko; era berean, zenbait teknika eta tresna aztertuko dira, teknologia digitalaren bidez adierazpen-forma berriak garatzeko eta eraldatzeko.

Mahai-ingurua

Digital Identities-ek, gainera, hitzaldi ireki bat egingo du maiatzaren 16an (osteguna), kultura-jardueren nortasun digitalez hausnartzeko. Mahai-inguruan bilduta, sare sozialak funtsezko tresnak al dira praktika artistikoa erakusteko eta sustatzeko? Zein balio gehigarri izan dezake euskarri digitalak?

Haien funtzioa eta beharra aztertzeaz gain, sormen artistikoa gizartearekin lotzeko estrategia digitalak baloratu eta diseinatuko dira.

Online egonaldia

Laborategiko parte-hartzaile guztien artean, hamar aukeratuko dira, Digital Identities taldeak emango duen 3 hilabeteko online egonaldia egin dezaten. Programa amaitzeko, hitzaldi bat izango da azaroaren 5ean, hamar egoiliarrek landutako lanak parteka ditzaten.

////////////////////////////////////

Otsailak 26 > apirilak 16

DEIALDI IREKIA PROIEKTUEN AURKEZPENEA

Laborategian parte hartzeko izena emateko inprimakia bete behar da, hemen: azkunazentroa.eus

Kolektibo edo erakunderen batekoa bazara, zure taldeko hiru kidek har dezakete parte gehienez. Guztira, 30 artista, kolektibo eta/edo agente kultural hautatuko dira.

Hautatutako pertsonen ordainketa egin beharko dute izena emateko: 25€ / 20€ Az txartelarekin.

Maiatzak 16, osteguna

9:00-14:00 eta 15:00-17:00

LABORATEGI DIGITALA
Inskribatutako pertsonentzat
Bastida Aretoa

18:00 HITZALDIA / MAHAI- INGURUA

Sarrera dohainik
gonbidapenarekin (jaso
Infopuntuan), eserleku guztiak
bete arte

Hizkuntza: ingeleza

Bastida Aretoa

Maiatzak 17, ostirala

9:00-15:00

LABORATEGI DIGITALA
Inskribatutako pertsonentzat
Bastida Aretoa

KULTURA DIGITALA / EGONALDI ARTISTIKOAK
EKA. 17 > 30

Media Façade Academy

*smARTplaces programa europarreko
proiektua*



Beste urte batez, hiru artisten lanek Eguzkiaren Pantaila eraldatuko dute Media Façade programaren barruan, Etopia Arte eta Teknologia Zentroak (Zaragoza), Dortmund U-k (Alemania) eta Azkuna Zentroak batera antolatuta.

Media Façade Academy, egonaldien programa Europako smARTplaces proiektuan sartuta dago. Diziplina askotako artistek, profesionalek eta ikasleek beren burua prestatzen dute, tamaina handiko euskarri digitaletan jartzeko moduko pieza argitaragabeak sortu eta garatzeko, esate baterako, Az-ko Eguzkiaren Pantaila, Etopia zentroko fatxada edo DoUko pantailatarako.

«Az-ko Eguzkiaren Pantailak gaitasun estetiko eta komunikatzaile izugarria du, eta, aldi berean, oihal indartsu eta argizko eskultura handi bat da. Milaka bisitari hartzen ditu egunean, eta Arterako euskarri diren gailu digitalen ideia irudikatzen du. Espazio publikoan duen izaera ikusita, eta etengabe mugitzen ari den oihala izatea, haren forma karratua, dimentsioa eta isla eta Atariko koloreen kolonizazioa aintzat hartuta, objektu-leku berezia eta indartsua da Eguzkiaren Pantaila». Jaime de los Ríos

Etopian izan den Media Façade Academy egonaldiaren aurtengo edizioan parte hartu dutenei zabaldutako deialdia egin ondoren, epai-mahai batek hiru proiektu hauek aukeratu dituzte.

Uztailaren 1etik 15era bitartean, pieza artistikoak Eguzkiaren Pantailan egongo dira erakusgai, etenik gabe.

////////////////////////////////////

Ekainak 17 > 30

Eguzkiaren pantaila

Kulturen Ataria

Sarrera dohainik

////////////////////////////////////

 www.zaragoza.es/ciudad/etopia

 www.dortmunder-u.de

SMART
PL/CES


Co-funded by the
Creative Europe Programme
of the European Union



Craft, Enterprise and Gender in the Digital Age

The work of art. Live dialogues

smARTplaces programa europarreko proiektua



Az-n diseinatu eta smARTplaces proiektuaren barruan sortu zen 'Thework of art. Live dialogues' online elkarrizketa-programa, eta bosgarren edizioa beteko du ekainaren 21ean Birmingham City University unibertsitatean. Online programa honek 'Facebook live'-ko zortzi elkarrizketa ditu, eta arte-lanari eta -prozesuei buruzko gogoetak jasotzen ditu, zenbait parte-hartzailearen bidez.

Parker eta Pollock egileen iritziz (1981), emakumeen lanari seigarren mailako estatusa ematen zaio beharra egiten den espazioagatik, jarduera pribatuen eta publikoen artean, etxeko lanen eta profesionalen eta arauzko feminitatearekiko erreferentzien artean.

Ekainak 21, ostirala
Facebook Live #TheWorkofArt

Ekoinpen artistikoari buruzko elkarrizketen seigarren edizio honetan, artisau-artisten desafioei buruz arituko dira gogoetan, genero-aniztasuna, ekintzailatza eta teknologia arloan.

smARTplaces entzuleriak garatzeko kultura-lankidetzako Europako proiektu bat da, eta haren helburua da kultura eta artea hautemateko eta kontsumitzeko moduak iraultzea, teknologia digitala eta bitartekaritza kulturalerako forma berriak erabiltzea.

////////////////////
Ekainak 21, ostirala
Facebook Live #TheWorkofArt
////////////////////
 www.smartplaces.eu

ARTE GARAIKIDEA / INSTALAZIOA

Isaac Cordal

Seguir a los líderes del artista

Azkuna Zentroa elkarlanean aritzen da aurten Bilbao Art District-ekin (BiAD). Bilboko Udalak Bilbao Ekintzaren bidez bultzatzen duen ekimen publiko-pribatu honek arte bisualek sortzen duten balioa (ekonomikoa, soziala, kulturala...) sustatzea, aldarrikatzea eta hartaz hausnartzea du helburu.

Bilbao Art District maiatzaren 2an inauguratuko da Kulturen Atarian, *Isaac Cordal* (Galizia, 1974) artistaren *Seguir a los líderes* instalazioarekin: hiri bateko biztanleak mimetizatu egiten dira hiriko lan-hondakinekin. Hirian bizi diren negozio-gizon txikiak hara-hona dabilta noraezean, bere erabakien albo-ondorioak ikusten; erortzeko zorian dagoen hiri hori da naturatik urrundu ahala utzi dugun arrastoa.

**Maiatzaren 2tik,
osteguna**

**Kulturen Ataria
Sarrera dohainik**

**Ikusi programa osoa hemen:
www.basquefest.eus**



ARTE BIZIAK / MUSIKA

Mendi-Mendiyan

Opera Eguzkiaren Pantailan

Azkuna Zentroak bat egiten du *Mendi-Mendiyan* opera Arriaga antzokitik zuzenean aldi berean emateko proiektuarekin. Ekainaren 22an izango da, larunbatarekin, Eguzkiaren Pantailan. José María Usandizagaren harribitxi liriko hau, Calixto Bieitoren begietatik ikusita, hiriko beste toki batzuetan ere egongo da entzungai, esaterako, Errekaldeko plazan, Zorroztako frontoian eta Txurdinaga eta Sarriko auzoetan.

Calixto Bieitok berriz heldu dio erronkari, lehen mailako euskal egile baten obra handi bat eszenaratzeko.

Ekainak 22, larunbata

19:30

**Kulturen Ataria Eguzkiaren
Pantaila**

Sarrera dohainik



**TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA**



EGONALDI ARTISTIKOEN PROGRAMA

Dantza Garaikidea

Elkarlanean:

dans
ateliers

Jaiotz Osa eta Sigrid Stigsdatter Mathiassen



Jaiotz Osa

Azkuna Zentroak eta dantza garaikideko sorkuntza eta erakusketako Dansateliers Rotterdam zentroak [Jaiotz Osa](#) koreografoari eta [Sigrid Stigsdatter Mathiassen](#) koreografoari eman diete bi zentroek elkarrekin eskaintzen duten dantza garaikideko egonaldia.

Epai-mahaiak [Jaiotz Osa](#) hautatu du, 2019ko irailean Azkuna Zentroan eta 2020ko urtearen hasieran Dansateliers

Rotterdam-en izango den egonaldi honetarako.

[Jaiotz Osa](#)k OSA+MUJIKA konpainia osatzen du, Xabier Mujikarekin batera. Bi mundu sortzaileen batuketa da, dantza eta eszenografia/jantzitegiaren uztarketa. Jaiotz dantzaria eta koreografia da; Xabier Mujika, berriz, jantzitegi eta espazio eszenikoaren diseinatzailea. Bien artean, istorio bisualak kontatu nahi dituen taldea eratzen dute.

Buruan dituzten irudi guztiak sortu nahi dituzte, forma eta zentzua eman, eta gauzatu nahi dituzte, mugimendu aldetik eta ikus-entzunezkoen formatuan.

Bestetik, dantza garaikideko sorkuntza eta erakusketako Dansateliers Rotterdam zentroak [Sigrid Stigsdatter Mathiassen](#) (1990, Danimarka) koreografoa hautatu du, bi espazioetan egiten den egonaldi honetarako. Artista honek Bilbon izango du egonaldia, irailaren 2tik 30era, Jaiotz Osarekin harremanetan.

[Egonaldi Artistikoen Programa](#)

Azkuna Zentroak era askotako ekimenak antolatzen ditu, zuzeneko eta erakusketako arteen inguruko ikerketa, sorkuntza eta ekoizpena sustatzeko, artelanen sorkuntza bultzatu, eta ikus-entzuleengana hurbiltzeko, hala egindako obra nola sorkuntzako prozesuak erakutsiz.

[Programa honek baldintza material egokiak eskaintzen dizkie sortzaileei, zentroaren programazioei lotuta dauden proiektuak garatzeko. Hainera, hurbileko sorkuntza-ehuna nazioarteko kultura-inguruneekin lotu, eta truke, erlazio eta lankidetzara iraukorrak eta elkarrekikoak bilatzen ditu.](#)

Zeregin horretan, ahalegina egiten du beste zentro batzuekin elkarlanean aritzeko, adibidez, Rotterdamgo Dansateliersekin dantza garaikideko zentroarekin. Sare horiek bide ematen dute prozesu artistikoak trukatzeko eta jarraipena izan dezaketean lanbide-harremanak ehuntzeko.



Sigrid Stigsdatter

Sra. Polaroiska

Ez dago adinik erritmorako



No hay nada más moderno que envejecer

Sra. Polaroiska kolektiboak *No hay edad para el ritmo* instalazioa parte hartzera gonbidatzen gaitu. Hor, azken ikus-entzunezko pieza proiektatuko du, No hay nada más moderno que envejecer, eta gailu bat proposatuko du, adin guztietako jendeak aukera izan dezan belaunaldien arteko dantza kolektibo eta familiar batez gozatzeko.

Mugitzen ari diren gorputzak begiesteko gonbidapen bat da. Denboraren iragaitzak zizelkatutako edo zizelkatu gabeko gorputzak, denak desberdinak, amodioa, desira, edertasuna, sexua, dibertsioa eta txerak aipatzen dituen dantza bat eraikitzen. Sentitzen, dardaratzen eta orainaldian bizitzen mugitzen diren gorputzak. Ehundurak, larruak eta erritmoak, beren eskubidez eta plazer hutsez gozamenaren asten.

Proposamen honen bidez, zalantzan jarri nahi da zenbait kanonen eraikuntza, aurreiritziz eta estereotipoz beterik dagoen imaginario soziala eta kulturala desmuntatzeko. Ez dago adinik erritmorako, beraz, goza dezagun une bakan batez, dantzatzeko plazer hutsez.

////////////////////////////////////

Ekainak 8, larunbata

18:00-20:00

Lantegia 1

4€ / 3€ Az txartelarekin
Sarrerak: Infopuntua eta www.azkunazentroa.eus

////////////////////////////////////

 <http://cargocollective.com/srapolaroiska>

 #srapolaroiska

 vimeo.com/sra_polaroiska

////////////////////////////////////



SRA POLAROISKA Alaitz Arenzanak Eta Maria Ibarretzek Eratzen Dute Sra Polaroiska. Beren obrak zinema esperimental, ekintzako artea,

eta sorkuntza eszenikoa eta koreografikoa ditu ardatz. 2017an Gure Artea saria irabazi zuten, sorkuntzan egiten duten jardueraren onespenez gisa.

Arte-zentro eta nazioarteko jaialdi askotan erakutsi dituzte beren pieza eszenikoak eta ikus-entzunezkoak: Artium Museoa, Reina Sofia Museoa, Guggenheim Museoa, Stockholmeko Cervantes Institutua, Manchester, Parisko Festival des Cinémas Différents, Casa Encendida, Bilbao Arte Fundazioa, eta abar...

////////////////////////////////////

Sra. Polaroiska Azkuna Zentroko artista elkartu bat da. Sorkuntza bultzatzeko programa honek laguntza eman nahi die beren lanen bidez hizkuntza artistikoei buruzko begirada iradokitzailea dakarten artistei. Informazio gehiago 11. orrialdean.

ARTE GARAIKIDEA / ARTISTA ELKARTUAK
EKA. 6 > 8 (ostg. > lar.)

Oscar Gómez Mata

Deriben katalogoa



Oscar Gómez Mata artistak Deriben Katalogoa zuzenduko du ekainaren 6an, 7an eta 8an; jarduera horretan zenbait deriba gauzatzea proposatuko du, eguneroko hiri-paisaiak behatzea eta esploratzea landuz.

Oinez ibiltzeko ekintzaren bitartez hiri-paisaiaren eta parte-hartzailearen barne-biziaren artean loturak finkatzeko asmoa duten praktikak dira deribak. Ustekabekoa esnatu, guztiok dakiguna eta ezagutzen duguna berrasmatu eta probatu.

Zoria, sinkronikotasuna eta serendipia piztu. Esperientzia horretatik abiatuta, material pertsonala nola sortzen den ikusi. Deribaren ideia, aldez aurretik jasotako jarraibideekin lekualdatze edo ibilbide fisiko eta mental gisa irudikatuta, parte-hartzailearen ikuspuntua aldatzen ahaleginduz.

Ariketa hori eginez, deriba material artistikoa sortzeko tresna ere bihur daiteke. Lekualdatze fisikoak eta mentalak hainbat material aurkitzera eta biltzera garamatza: testuak, gogoetak, pentsamenduak, irudiak, soinuak... beti pentsamenduarekin lan eginez: “zerbait aurkitu behar dut”.

Horrez gain, maiatzaren 31n workshop erako topaketa bat izango da arte-arloko profesionalekin, era horretako antolakuntzak sormen-materialaren eragile izateari buruz elkarrekin hizketan aritzeko.

Ekainak 6 > 8, ostegunetik larunbatera.

11:00-19:00

Kulturen Ataria

Sarrera dohainik eserleku guztiak bete arte

Maiatzak 31

TOPAKETA PROFESIONALEKIN

 www.alakran.ch

 [cie.lalakran](https://www.facebook.com/cie.lalakran)

 [ogomezmata](https://www.instagram.com/ogomezmata)



©Stevelluncker_Web

OSCAR GÓMEZ MATA

Donostia, 1963) Suitzan bizi eta lan egiten du, Genevan. Aktorea, zuzendaria, egilea eta eszenografoa da. Espainian hasi zen antzerki-jardueretan,

eta 1987an Legaleón-T konpainiaren sortzaile-kide izanik, ikuskizunak sortu zituen horiekin 1996ra arte. 1997an, L'Alakran konpainia sortu zuen Genevan, eta zuzendaritza, sorkuntza, dramaturgia edo zenbait ikuskizun sinatu ditu bertan. Oscar Gómez Mata lan pedagogikoa ere garatu du Suitzako Serge Martin antzerki eskolan eta Frantziako Les Chantiers Nomadesen. 2013. urteaz geroztik, arauzko irakaslea da Manufacture - Suitza frantseseko antzerki eskolan. (HETSR) Suitzako antzerki sari nazionala 2018an.

Oscar Gómez Mata Azkuna Zentrok artistak elkartu bat da. Sorkuntza bultzatzeko programa honek laguntza eman nahi die beren lanen bidez hizkuntza artistikoei buruzko begirada iradokitzailea dakarten artistei. Informazio gehiago 9. orrialdean.

HEZKUNTZA PROGRAMA



HEZKUNTZA PROGRAMA



IKASTETXEEKIN ETA LANBIDE HEZIKETAKO ZENTROEKIN ITUNDUA

86 Laboratorio PlayTime

90 Ezagutu Mediateka

HELDUAK

88 Fanzine-tailerra Klari Moreno eskutik

HAURRAK ETA GAZTEAK

87 JokuPlay - FANT berezia

91 Robotika, programazio eta diseinuko tailerrak



HEZKUNTZA PROGRAMA / ARTE GARAIKIDEA

API. 2, 3, 2 > 4 / MAI. 7 > 9

Laboratorio PlayTime

Mabi Revueltaren proiektu bat

Helena González Kontrapublizitateko jokoak

Mabi Revueltak asmatu eta beste batzuekin batera zuzendutako *Laboratorio PlayTime* programan, 500 ikaslek baino gehiagok parte hartu dute orain arte; programak artearen izaera aztertzen du, jakintza eta eraldaketarako esparru gisa.

Apirilean, Helena González izango da tailerraren zuzendarietako bat, eta kontrapublizitateko jokoak egitea proposatuko du. Jardueraren xedea da publizitateak darabiltzan estrategiak pirateatzea, desmuntatzea eta azpikoz gora jartzea. Artistak modu kritikoz aztertu nahi ditu iragarkietako irudiak, eta haietan esku hartu, hausnarketa pizteko. Kontsumoko gizarreak modu artifizialean eta interesatuan fabrikatzen dituen ikonografia-motak aztertu nahi ditu, eta kontsumo masiboari aurre egiteko estrategia gisa sor ditzakegunak ere bai.

////////////////////////////////////

Apirilak 2 > 4
asteartea > osteguna

Maiatzak 7 > 9
asteartea > osteguna

10:00 - 11.30
Erabilera askotarako aretoa
Hizkuntza: Gaztelania eta ingelesa

Ikastetxeekin itundua.
Bigarren Hezkuntzako 2. mailara eta batxilergoetara zuzenduta

Informazioa eta erreserbak:
944 014 014 /
azkunazentroa@azkunazentroa.eus

////////////////////////////////////



JokuPlay - FANT BEREZIA

Mediateka BBK-ko jolasgunea

Fant Fest - Bilboko Zinemaldi Fantastikoaren 25. urtemuga dela-eta, Azkuna Zentroak fantasia eta beldurrezko bideo-jokoen atzera begirako erakusketa bat jarriko du JokuPlayn, hau da, joko tradizionalen eta teknologikoen bidez esperientziak partekatzeko jokoari eskainitako espazioan.

Mini NES Classic-en du abiaburua, Metroid (1986) eta Castlevania (1986) lanekin; eragin gehien izan duten bideo-jokoen serieetako bi dira, eta haien izenak uztartuz Metroidvania hitza sortu zen. Gero, PS4-n du jarraipena, Grim Fandango (1998) lanarekin. Abentura grafiko honen oinarrian mitologia barruko heriotzari buruzko sinesmenak daude, eta noir filmen estilo nabarmena du. Indie jokorik modernoetarako utziko ditugu ordenagailuak: Fignant (2017) joko psikiko zokorik sakonenetan eta fobietan barneratzen da, grafiko koloretsuak erabiliz. Little Nightmares (2017) jokoan, neskato bat da protagonista, eta haren estilo groteskoa nabarmentzen da.

Apirilaren 9an, asteartearekin, The Mask of Atlantis. Del cine fantástico experimental a los videojuegos (Zinema fantastiko esperimentaletik bideo-jokoetara) topaketa izango dugu, The Mask of Atlantis bideo-jokoaren sortzaileak diren Mikel Calvo eta Jorge Núñezekin. Informazio gehiago 64. orrian.

////////////////////////////////////
Apirilak 8 > Maiatzak 11

Astelehenetik ostiralera:
9:00-21:00h

**Larunbat, igande eta
jaiegunetan: 11:00-21:00**

Mediateka BBK. 2 Solairua
14 urtetik aurrera

Sarrera dohainik

////////////////////////////////////
Laguntzailea:



Fanzine-tailerra Klari Moreno eskutik

Fanzinea norberak ateratako argitalpen bat da, eta tresna ezin hobea geure sorkuntzak banatzeko. Klari Morenok Borja Cresporen laguntzaz emango duen tailer honetan, hainbat gai jorratuko ditugu: nola ekoitzi gure argitalpena, zein fanzine-mota dagoen, eta nola egin geurea baliabide handirik erabili gabe.

Fanzine bat aurrera ateratzeko, ez da beharrezkoa marrazkilaria edo idazle handia izatea. Tailerra amaitzean, parte-hartzaile bakoitzak bere lana edukiko du, etxera eramateko edo gainerako parte-hartzaileekin trukatzeko moduan.

Lehenengo aldia: Aurkezpena eta fanzineekiko harremana.

Zer da fanzine bat? Zein fanzine-mota dago? Artista izan behar al da bat sortzeko? Non erosi ahal ditut? Nola banatzen dira fanzineak? Galdera horiei erantzuna emango diegu, era askotako fanzineak erabiliz, formatu eta izaera desberdinetakoak, eta begiratu eta ukitu ahal izango ditugu. Haietaz eta haien istorioez hitz egingo dugu.

Bigarren aldia: Fanzine txiki bat sortzea.

Tailerraren bigarren aldian, fanzine bat sortuko dugu. Trikimailu txikiak ikasiko ditugu etxean maketatzeko (maketazio analogiko eta digitalekoak), argitalpen bat ateratzeko egokiak, eta nola eta non inprimatu landuko dugu. Aldi honetan, dinamika errazak erabiliz, parte-hartzaile bakoitzak bere fanzinea sortuko du, folio bakarra erabiliz, eta testua, collagea, marrazkiak... gaineratuz.



Maiatzak 23, osteguna

17:30-20:30

Medialab 2. 2 Solairua
Mediateka BBK

3€/2€ Az Txartelarekin

Sarrerak: Infopuntua eta
www.azkunazentroa.eus

25 plaza





HEZKUNTZA PROGRAMA

Ezagutu Mediateka BBK

Mediateka BBK-k bisita gidatuak antolatzen ditu ikastetxeentzat, haurrak eta gazteak instalazioa erabiltzen prestatzeko. Ilbilbide horietan, eskaintzen diren zerbitzuak ezagutarazi, eta pertsonen trebetasunak eta abileziak sustatzen dira, ikasleen adinaren arabera diseinatutako jardueren bidez.

Ikastetxeekin itunduta (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntzako 3. zikloa, Bigarren Hezkuntzako 1. zikloa, prestakuntzako zikloak)

Interesa duten hezkuntza-zentroek e-postako mezua bidali behar dute mediatekabbk@azkunazentroa.eus helbidera, edo bisita eskatu telefono honetara deituta: 94 612 43 67

////////////////////////////////////

2018ko urriak 1 > 2019ko maiatzak 30

Asteazkenak eta ostegunak

9:30 - 11:00

Mediateka BBK. Planta 1

Hizkuntza: Euskara eta gaztelania

Ikastetxeekin itundutako ikastaroa da: haur hezkuntza, lehen hezkuntzako 3. zikloa, bigarren hezkuntzako 1. zikloa, prestakuntzako zikloak.

Informazio eta erreserbak:

94 612 43 67/

mediatekabbk@azkunazentroa.eus

////////////////////////////////////

Laguntzailea:

bbk 



Robotika, programazio eta diseinuko tailerrak

Camp Tecnológicook teknologiarri lotutako hainbat jarduera antolatzen ditu urtean barrena, 4 eta 17 urte arteko gazteei zuzenduta Kanpamendu, asteburuko klub edo ikastaroaren formatua hartuta, hezkuntzako proposamen hauek zientzia, teknologia, ingeniaritza eta matematikarekiko interesa pizten dute gazteengan.

Tailerretan, hastapenak ikasten dira hainbat teknologiatan, esaterako, robotikan, programazioan eta bideo-jokoen garapenean, edota 3Dko diseinuan eta inprimatzean, gazteek, programazioaren logika erabiliz, beren gailuak eta aplikazioak irudikatu eta eraiki ahal izan ditzaten.

//////
Camp Tecnológico
Kulturen Ataria

Informazioa eta erreserbak:
www.camptecnologico.com



JARDUERA FISIKOKO ZENTROA (JFZ)

Jarduera Fisikoko Zentroa, espazio irekia eta konektatua

Espazioa

Azkuna Zentroak 10.000 metro karratuko Jarduera Fisikoko Zentroa (JFZ) du, lau solairutan banatua. Egunero zabaltzen ditu ateak, goizeko zazpietatik gaueko hamaika arte.

Jarduera fisikoarekin batera, osasunari lotuta dagoen tradiziozko ariketa egiten da, pertsonaren osoko garapena lortzeko mota guztietako jardueren bidez, bakoitzak bere helburuetara hobeki egokitzen diren horiek hauta ditzan.

Ura

Igerilekua eraikinaren goialdean dago eta bi piszina-ontzi ditu, sakonera eta tenperatura desberdinekin, adin-tarte desberdinetako lagunen beharrak betetzeko Igeriketa libreak gain, era askotako jarduerak egin ahal dira, langile espezializatuek gidatuta.

Lurra

Fitness aretoak 1.200 metro karratu baino gehiago ditu, eta entrenamendu aerobiko eta kardiobaskularrerako makinez hornituta dago, banaka edo taldekako saioetan aritzeko. Gimnasio-aldean, erabilera askotako sei areto gehiago daude, jarduera desberdinak egiteko.

380 ikastaro

66.000 lagun inguru bertaraten dira, astero igerilekuan eta gimnasioan ematen diren 590 eskoletan parte hartzera. 50 modalitate eta 350 ikastaro baino gehiago eskaintzen dira, era guztietako beharrak eta entrenamenduko xedeak aintzat hartuta. Ikastaroak egitea errazagoa izan dadin, Jarduera Fisikoko Zentroak Premium Tarifa du.

Publikoak

Hilabete gutxiko haurtxoak eta hirugarren adineko lagunak, familiak, gazteak, inguruan bizi diren profesionalak... Era askotako jendea hurbiltzen da Jarduera Fisikoko Zentrora, egunero bisita gehien izaten dituen espazioetako bat da.

Ikuspegi berria

Az-ko espazio irekia eta konektatua JFZa. Leku egokia gorputz-ariketak lantzeko eta, etorkizunean, programazio artistikoari lotutako jarduerak ere egiteko. Espazio zeharkakoa eta esperimentalta, esperientzia global gisa sortua, programazio kulturalaren eta jarduera fisikoaren artean zubiak eratzeke.



AGENDA

AGENDA / APIRILAK

NOIZ	ORDUA	LANA/JARDUERA	+INFO
26 OTS. > 16 API.		Deialdi irekia: Culture Lab	66. or.
14 MAR. > 22 IRA.		Erakusketa <i>Inoiz ez erreala / Beti egiazkoa</i>	34. or.
15 MAR.> 15 MAI.		Fatxada. Higinia Garay <i>Bigarren begiratua</i>	36. or.
1 API. > 12 MAI.		Komisariotzaren Nazioarteko Sinposioa Call for papers	42. or.
2 API. Asteartea	9:30-13:00	Gutun Zuria. Tailerra: Hitzak suntsitzea ederra da Irakaslea: Verónica Gerber Bicecci	22. or.
	10:00-11:30	PlayTime. Helena González <i>Kontrapublizitateko jokoak</i>	86. or.
	18:00	consonni radio Az-rekin	40. or.
	19:00	Gutun Zuria. Solasean: Verónica Gerber Bicecci, Iván de la Nuez-rekin	22. or.
	21:00	Gutun Zuria. Hitzaldia: Maialen Lujanbio	22. or.
3 API. Asteazkena	9:30-13:00	Gutun Zuria. Tailerra: Hitzak suntsitzea ederra da Irakaslea: Verónica Gerber Bicecci	22. or.
	10:00-11:30	PlayTime. Helena González <i>Kontrapublizitateko jokoak</i>	86. or.
	10:00-13:00	Gutun Zuria. Topaketa: Euskadiko Idazleen Elkarteak. Nola erakarri ikus-entzule berriak <i>literatura-jaialdietara</i>	23. or.
	17:00-19:15	Gutun Zuria. Tailerra: Irudiak eta hitzak, bestelako ikuspegia duen tailerra. Irakaslea: FormArte	22. or.

NOIZ	ORDUA	LANA/JARDUERA	+INFO
3 API. Asteazkena	17:00	Gutun Zuria. consonni radio Az-rekin Voces en el jardín. Gutun Zuria berezia	24. or.
	17:30	Zinemateka. Zinemaren historiako 50 harribitxi <i>Sunset Boulevard</i> (1950)	48. or.
	19:30	Gutun Zuria. Buruz buru fikzio fotografikoaren inguruan. Joan Fontcuberta, Cristina de Middel, Agustín Fernández Mallo	23. or.
	20:00	Zinemateka. Zinemaren historiako 50 harribitxi <i>The General</i> (1926)	48. or.
4 API. Osteguna	9:30-13:00	Gutun Zuria. Argitaletxe independenteekin topaketa	23. or.
	10:00-11:30	PlayTime. Helena González <i>Kontrapublizitateko jokoak</i>	86. or.
	10:00-13:00	Gutun Zuria. Topaketa Euskal Idazleen Elkartea. Hitz Beste	23. or.
	17:00-19:15	Gutun Zuria. Tailerra: Irudiak eta hitzak, bestelako ikuspegia duen tailerra. Irakaslea: FormArte	22. or.
	17:00	Gutun Zuria. consonni radio Az-rekin Voces en el jardín. Gutun Zuria berezia	24. or.
	17:30	Zinemateka. Zinemaren historiako 50 harribitxi <i>The General</i> (1926)	48. or.
	18:00	Gutun Zuria. Solasaldia: Xabier Gantzarain, Harkaitz Cano	24. or.
	19:30	Gutun Zuria. Artea kontatzeko artea. Juan Vico, Carlos Fonseca, Valérie Mréjen, Julián Rodríguezekin	24. or.
19:30	Zinemateka. Zinemaren historiako 50 harribitxi <i>Sunset Boulevard</i> (1950)	48. or.	
5 API. Ostirala	9:30-13:00	Gutun Zuria. Topaketa Euskal Idazleen Elkartea. Hitz Beste	23. or.
	17:00	Gutun Zuria. consonni radio Az-rekin Voces en el jardín. Gutun Zuria berezia	24. or.

NOIZ	ORDUA	LANA/JARDUERA	+INFO
5 API. Ostirala	18:00	Gutun Zuria. Mahai-ingurua. Danele Sarriugarte, Beatriz Chivite, Eric Dicharry, Beñat Sarasolarekin	24. or.
	19:30	Gutun Zuria. Solasean: Bernardo Atxaga, Oskar Alegria	24. or.
	21:00	Gutun Zuria. Topaketa Christina Rosenvinge, Chico y Chicarekin	25. or.
6 API. Larunbata	12:30	Loraldia. Larart (I) / Basotik Itsasora (cine)	
	19:30	Gutun Zuria. Amildegia esploratzen duten irudiak. Enrique Vila-Matas, Alicia Kopf, Iñaki Esteban	25. or.
	21:30	Gutun Zuria. Rafael Lechowski	25. or.
8 API. > 11 MAI.	9:00- 21:00	JokuPlay - FANT Berezia	87. or.
9 API. Asteartea	19:00	Zinema fantastiko esperimentaletik bideojokoetara	64. or.
	18:00	consonni radio Az-rekin	40. or.
10 API. Asteazkena	17:30	Zinemateka. Zinemaren historiako 50 harribitxi <i>Paris, Texas</i> (1984)	48. or.
11 API. Osteguna	18:30	Zinemateka. Zinemaren historiako 50 harribitxi <i>Paris, Texas</i> (1984)	48. or.
	19:00	Topaketa José Ángel Mañasekin	26. or.
16 API. Asteartea	18:00	consonni radio Az-rekin	48. or.
17 API. Asteazkena	19:30	Basque Fest. Gonbidatutako jaialdia: Errobiko Festibala, Itsasu (Lapurdi)	44. or.
	20:00	Basque Fest. Kalakan & Khamiren kontzertua	44. or.

NOIZ	ORDUA	LANA/JARDUERA	+INFO
18 API. Osteguna	12:30	Basque Fest. Haur-ikuskizuna: Enaren Kontuak	44. or.
	18:00	Basque Fest. Zertzeladak ikuskizuna + Bilboko Txistularien Udal Banda + Oinkari Dantza Taldea + Birakari Sestaoko Erraldoiak + Aitor Furundarena + Nerea Ibarzabal	44. or.
	22:00	Basque Fest. Niko Etxarten kontzertua	44. or.
19 API. Ostirala	12:30	Basque Fest. Haur-ikuskizuna: Circo-Teatro Prozak	44. or.
	18:00	Basque Fest. Enkarguz ikuskizuna, Andoni Egaña eta Xabier Zabalorekin	44. or.
	22:00	Basque Fest. Audienceren kontzertua	44. or.
20 API. Larunbata	12:30	Basque Fest. Haur-ikuskizuna: Plaza Girotz	44. or.
	18:00	Basque Fest. Haur-ikuskizuna: Plaza Girotz	44. or.
	22:00	Basque Fest. Oreka TX + San Salvadoren kontzertua	44. or.
23 API. Asteartea	18:00	consonni radio Az-rekin	48. or.
26 API. Ostirala	17:00	Red Bull Dance Your Style	
30 API. Asteartea	18:00	consonni radio Az-rekin	48. or.

AGENDA / MAIATZA

NOIZ	ORDUA	LANA/JARDUERA	+INFO
2 > 20 MAI.		Bilboko Zinemaldi Fantastikoa - FANT	51. or.
2 MAI.		Isaac Cordal <i>Seguir a los líderes del artista</i>	72. or.
7 MAI. Asteartea	10:00- 11:30	PlayTime. Helena González <i>Kontrapublizitateko jokoak</i>	86. or.
	18:00	consonni radio Az-rekin	48. or.
8 MAI. Asteazkena	10:00- 11:30	PlayTime. Helena González <i>Kontrapublizitateko jokoak</i>	86. or.
9 MAI. Osteguna	10:00- 11:30	PlayTime. Helena González <i>Kontrapublizitateko jokoak</i>	86. or.
13 > 17 MAI.		Zinemagileen artean. Emakumeek egindako zinemaren 8. karabana	51. or.
14 MAI. Asteartea	18:00	consonni radio Az-rekin	48. or.
15 MAI. > 15 UZT.		Fatxada. Naiara Goikoetxea	38. or.
15 MAI. Asteazkena	17:30	Zinemateka. Zinemaren historiako 50 harribitxi <i>To be or not to be</i> (1942)	48. or.
	19:00	Aurkezpena: <i>Mujeres, dones, mulleres, emakumeak</i>	28. or.
16 MAI. Osteguna	10:00- 14:00 / 15:00- 18:00	Culture Lab. Proiektu artistikoen komunikazio digitala <i>Laboratorio digitala</i>	66. or.
	19:00	Culture Lab. Proiektu artistikoen komunikazio digitala <i>Mahai-ingurua</i>	66. or.
16 MAI. Osteguna	19:30	Zinemateka. Zinemaren historiako 50 harribitxi <i>To be or not to be</i> (1942)	48. or.
17 MAI. Ostirala	9:00- 15:00	Culture Lab. Proiektu artistikoen komunikazio digitala <i>Laboratorio digitala</i>	66. or.

NOIZ	ORDUA	LANA/JARDUERA	+INFO
18 MAI. Larunbata	20:00	Julia Eckhardt & Asmus Tietchens <i>Hotsetan, musika esperimentaleko programa</i>	54. or.
21 MAI. Asteartea	18:00	consonni radio Az-rekin	48. or.
22 MAI. Asteazkena	17:00	Zinemateka. Zinemaren historiako 50 harribitxi <i>What Ever Happened to Baby Jane?</i> (1962) Zer gertatu zitzaion Baby Janeri?	49. or.
23 MAI. Osteguna	19:30	Núria Guiu <i>Likes</i>	56. or.
	17:30	Fanzine-tailerra Klari Moreno eskutik	88. or.
	19:00	Topaketa Fernando Iwasakirekin	30. or.
	19:30	Zinemateka. Zinemaren historiako 50 harribitxi <i>What Ever Happened to Baby Jane?</i> (1962) Zer gertatu zitzaion Baby Janeri?	49. or.
24 MAI. Ostirala	21:00	Linn Da Quebrada <i>Kontzertua</i>	58. or.
28 MAI. Asteartea	18:00	consonni radio Az-rekin	48. or.
29 MAI. Asteazkena	17:30	Zinemateka. Zinemaren historiako 50 harribitxi <i>Letter from an unknown woman</i> (1948) Emakume ezezagun baten gutuna	49. or.
30 MAI. Osteguna	19:30	Zinemateka. Zinemaren historiako 50 harribitxi <i>Letter from an unknown woman</i> (1948) Emakume ezezagun baten gutuna	49. or.

AGENDA / EKAINA

NOIZ	ORDUA	LANA/JARDUERA	+INFO
3 EKA. Astlehena	19:00	Topaketa literarioa Seth marrazkilariarekin	32 or.
4 EKA. Asteartea	18:00	consonni radio Az-rekin	48 or.
5 EKA. Asteazkena	17:00	Zinemateka. Zinemaren historiako 50 harribitxi <i>Vertigo</i> (1958) Bertigoa	49 or.
6 EKA. Osteguna		Stéphane Gladyszewski <i>Corps noir</i>	60 or.
	19:30	Zinemateka. Zinemaren historiako 50 harribitxi <i>Vertigo</i> (1958) Bertigoa	49 or.
6 > 8 EKA. Osteguna > Larunbata		Oscar Gómez Mata <i>Deriben katalogoa</i>	80 or.
8 EKA. Larunbata	18:00	Sra. Polaraiska <i>Ez dago adinik erritmorako</i>	78 or.
	19:00	Miguel A. García & Ensemble <i>Hotsetan, musika esperimentaleko programa</i>	62 or.
11 EKA. Asteartea	18:00	consonni radio Az-rekin	48 or.
12 EKA. Asteazkena	17:30	Zinemateka. Zinemaren historiako 50 harribitxi <i>Persona</i> (1966) Pertsona	49 or.
13 EKA. Osteguna	19:30	Zinemateka. Zinemaren historiako 50 harribitxi <i>Persona</i> (1966) Pertsona	49 or.
14, 15 EKA. Ostirala, larunbata		Gau Zuria	44 or.
17 > 30 EKA.		Media Façade	68 or.

NOIZ	ORDUA	LANA/JARDUERA	+INFO
18 EKA. Asteartea	18:00	consonni radio Az-rekin	48 or.
19 EKA. Asteazkena	17:30	Zinemateka. Zinemaren historiako 50 harribitxi <i>Ninotschka</i> (1939)	50 or.
20 EKA. Osteguna	19:30	Zinemateka. Zinemaren historiako 50 harribitxi <i>Ninotschka</i> (1939)	50 or.
21 EKA. Ostirala	19:30	The work of art. Live dialogues <i>Craft, Enterprise and Gender in the Digital Age</i>	70 or.
22 EKA. Larunbata	19:30	Opera Eguzkiaren Pantailan <i>Mendi-Mendiyan</i>	72 or.
25 EKA. Asteartea	18:00	consonni radio Az-rekin	48 or.
26 EKA. Asteazkena	17:30	Zinemateka. Zinemaren historiako 50 harribitxi <i>La notte</i> (1961) Gaua	50 or.
27 EKA. Osteguna	19:30	Zinemateka. Zinemaren historiako 50 harribitxi <i>La notte</i> (1961) Gaua	50 or.

INFORMAZIO OROKORRA

BISITA GIDATUAK

Banakako bisitak:

Astelehena eta astearta (gaztelaniaz), 19:00

Osteguna (euskaraz), 19:00

Bisita dohainik da, 45 minutuko iraupena du, eta gutxienez bost lagun behar dira egin ahal izateko.

Taldekako bisitak:

Bisita taldeka egin nahi baduzu (gehienez 25 lagun), asteko edozein egunetan egin dezakezu erreserba, goizeko 10:00etatik arratsaldeko 19:00etara. Prezioa 50 eurokoa da (25€ behar bezala eratu dauden eta bisita hau beren jarduera-egutegian sartzen duten elkarteak).

Informazioa eta erreserbak: Infopuntuan (informazio gunea) eta 944 014 014 telefonoan.

Az TXARTELA

Az Txartelak aukera ematen dizu kultura, gizarte eta ariketa fisikoko jarduerak biltzen dituen eskaintza zabalaz gozatzeko gure zentroan. Zentroko Txartelarekin, jarduera guztien inguruko informazioa jasoko duzu aldizka, eta deskontu eta abantaila interesgariak lortuko dituzu.

IRISGARRITASUNA

Azkuna Zentroak espazio errespetuzko, ireki eta irisgarria izan nahi du orotariko pertsona eta komunitateentzat. Gure jardueretan errazago parte hartzeko laguntza teknikorik behar baduzu, eska lezaguzu.

ORDUTEGIA

Kulturen Ataria

7:00 - 23:00	ASTELEHENA-OSTEGUNA
7:00 - 24:00	OSTIRALA
8:30 - 24:00	LARUNBATA
8:30 - 23:00	IGANDEA

Lantegia

Programazioaren arabera zabalduko da

ORDUTEGIA

Auditorioa

Programazioaren arabera zabalduko da

Bastida Aretoa

Programazioaren arabera zabalduko da

Mediateka BBK

9:00 - 21:00 ASTELEHENA - OSTIRALA
11:00 - 21:00 LARUNBATAK, IGANDEAK ETA JAIEGUNAK

Ikasketa Aretoa

7:00 - 23:00 ASTELEHENA - OSTEGUNA
7:00 - 24:00 OSTIRALA
8:30 - 24:00 LARUNBATA
8:30 - 23:00 IGANDEA

Jarduera Fisikoko Zentroa

7:00 - 23:00 ASTELEHENA - OSTIRALA
8:30 - 23:00 LARUNBATAK, IGANDEAK ETA JAIEGUNAK

Erakusketa Aretoa

ASTELEHENA ITXITA
11:00 - 20:00 ASTEARTETIK OSTEGUNERA ETA IGANDEAK
11:00 - 21:00 LARUNBATAK, IGANDEAK, JAIEGUNAK ETA JAIEGUN BEZPERAK

Jendearentzako arreta (Infopuntuan eta telefonoan)

8:00 - 22:00 ASTELEHENA - OSTIRALA
9:00 - 22:00 LARUNBATAK, IGANDEAK ETA JAIEGUNAK

Infopuntua

8:00 - 22:00 ASTELEHENA - OSTIRALA
9:00 - 22:00 LARUNBATAK, IGANDEAK ETA JAIEGUNAK

AzShop

9:00 - 21:00 ASTELEHENA - IGANDEA

